# anboto

DURANGALDEKO ASTEKARIA
2017ko martxoaren 3a
15. urtea
667. alea
www.anboto.org
TOKIKOM


## Kultura

Durangoko Bartolome Ertzilla Musika Eskolako ganbera-orkestrak asteburuko musika klasikoaren Bilboko jaialdian parte hartuko du. > 9



# Emakumeak ere agintean

Enpresen edo taldeen zuzendaritzetan gizonak ikustera ohituta gaude. Zergatik dute emakumeek presentzia gutxiago? Ardurak dituzten hiru emakumek egoera aztertu dute: Amorebieta futbol taldeko presidente Maria Eugenia Etxebarriak, zine zuzendari Lara Izagirrek eta HAZI fundazioko arduradun Alazne Uribarrik. > 16-17







## Guenetxeak Aristiren lekukoa hartu du Tokikomen

Jone Guenetxea ANBOTOko zuzendaria Tokikom tokiko hedabideen bateraguneko presidente izendatu dute. Guenetxeak Urko Aristiren lekukoa hartuko du. 2017an jauzi kualitatiboa emango duela aurreratu zuen Tokikomek martitzenean Eibarko Markeskua jauregian egindako batzar orokorrean. Guenetxeak berarengan jarritako konfiantza eskertu die Tokikomeko kideei. "Zaila izango da Urko Aristik emandako maila berdintzea, baina ilusioz eta gogotsu nago erronka berri honen aurrean", adierazi du kazetari abadiñarrak. > 5





**Durango > 3**
Martxoan, alokairuko 7 etxe izango dituzte prest gazteentzat

**Elorrio > 7**
Lapurretak amaitzeko, ezohiko prebentzio plana dago martxan

**Zaldibar > 6**
Maiatzaren 7ko herri galdeketa aurkeztu du Gure Esku Dagok

**Abadiño > 6**
Ur-parkea eraberrizten hasi dira, 46.000 euroko inbertsioagaz

Herririk herri

# "Emakumeen bizi-kalitatea hobetuko duen aurrekontua" landu gura du udalak

## Gobernuak zehar-lerro bihurtu gura du berdintasun arloa, generoa sailetara hedatuta

**DURANGO** Markel Onaindia

Durangoko gobernu taldeak (EAJ-PSE-EE) zehar-lerro bihurtu gura du berdintasun politika, genero ikuspegia udaleko sail guztietara hedatuta. Hori da 2017ko aurrekontuaren zirriborroan jasotzen den nobedaderik esanguratsuena, eta gainera aitzindaria dena, Bilboko eta Donostiako esperientzia pilotuak kenduta. Modu horretan, "emakumeen bizi-kalitatea hobetuko duen aurrekontu" bat lantzea gura dute, Pilar Ríos alkateordearen esanetan. 276.000 euro bideratzea proposatu dute. Zirriborroari zuzenketak egiteko epea hasi da, eta martxoko osoko bilkuran onartu gura dute.

Emakumeen aldeko proiektuak sailez sail diseinatu dituzte. Hirigintzan, puntu beltzen mapa berriagaz, gabeziak konpontzeak hartuko luke diruaren zati handi bat; 130.000 euro Benita Uribarrena parkea (Arte eta Historia museo ondokoa) egokitzeko, adibidez. Hainbat espaloi konpontzea ere pentsatu dute, umeen kotxeen eta aulkien

> Puntu beltzen mapa berriagaz, gabeziak konpontzeak hartuko luke diruaren zati handi bat



Martitzenean aurkeztu zuten aurrekontu zirriborroa.

mesedetan. Gizarteratze lanean, desgaitasunak edota aniztasun funtzionala duten gazteekin afektibitate sexualeko talde bat eratu gura dute, eta emakume atzerritarrekin jabekuntza tailerrak egin gura dituzte. Kulturan, herriko artisten lana ikertzeko beka bat proposatu dute.

**31,8 milioi euro**

Aitziber Irigoras alkatearen ustez, "aurrekontu orekatua, errealista, serioa eta zuhurra" da. 31,8 milioi eurokoa izanik, iaz baino %1,53 handiagoa litzateke, eta zerga bilketa ia 900.000 eurotan igotzea aurreikusi dute, batez ere jarduera ekonomikoa

> Urki-Hegoaldeko saihesbideko hirugarren faserako 800.000 euro erabili gura dituzte

igoko delakoan. Hala ere, Aldundiaren ekarpena ikusi behar –iaz 1,3 milioi bueltatu behar izan zuten–. Gainera, Amankomunazgoari gehiago eman beharra kritikatu du alkateak.

Gizarte ekintzagaz, enpleguagaz, pertsonalagaz eta elkarteekin dituzten "konpromisoak" mantenduko dituztela dio Irigorasek. Urki-Hegoalde saihesbideko hirugarren faserako 800.000 euro erabili gura dituzte, baina erremanentetik hartuta.

# Itxuraldatuta dator XII. Aukera Azoka asteburuan

## 27 dendak parte hartuko dute, iaz baino 8 gehiagok



Dendak Bai elkartearen egoitzan egin zuten aurkezpena, astelehenean.

**DURANGO** Itsaso Esteban

Durango, Abadiño eta Iurretako 27 dendak beheratutako prezioetan eskainiko dituzte stockean dauzkaten produktuak, asteburuko Aukera Azokan. Iaz baino zortzi denda gehiagok parte hartuko dute Landakon eta, ohi bezala, askotariko sektoreetako produktuak izango dira eskuragai. Gainera, Tyl estudioaren dekorazioagaz, itxuraldatuta dator Dendak Bai elkarteak antolatzen duen ekimena.

Aukera Azokari bultzada bat emateko helburuagaz, gastronomiak presentzia berezia izango du. Saltsan eta Gozaturen eskutik, ardo, garagardo eta gazta dastaketak eta pintxopote berezia izango dira, besteak beste.

# Berlinetik elkartasun mezuak Sapuetxera

## Berlinen bizi diren durangar batzuek Sapuetxeren aldeko kontzertuak antolatu dituzte asteburturako

**DURANGO** M.O.

Berlinen bizi diren durangar batzuek huste arriskuan dagoen Sapuetxeren aldeko kontzertuak antolatu dituzte asteburrurako. Etxe okupatua botatzeko asmoa du udalak eta, besteak beste, hori salatzeko helburuz prestatu dituzte kontzertuak. Barikuan Leipzigen izango da jaialdia, eta zapatuan Berlinen. Bertara joango dira Tres41 berriztarrak eta Tooth gernikarrak, eta hango Los Juanma eta Alien Placenta taldeekin bat egingo dute.

Sapuetxen garatutako dinamiken berri emango dute asteburuan, euskaraz, gaztelaniaz eta alemanez idatzitako eskuorriekin. Batzen den diruaren zati bat Kurdistanera bideratzeko izango da, Sapuetxeko kideekin hori adostu dute eta.

anboto komunikabideak
Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta
Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa:
946 232 523
Publizitatea:
946 217 902
publi@anboto.org

2017ko martxoaren 3a
14. urtea - 667. alea

**Zuzendaria:** Jone Guenetxea Arrinda.
**Administrazio burua:** Itziar Belar Zubizarreta.
**Administrazioa:** Miren Abasolo Txabarri.
**Publizitatea:** Itxaso Martinez de Arenaza Yarza eta Nagore Txintxurreta Isasi.
**Erredakzioa:** Aitziber Basauri Gandiaga, Itsaso Esteban Urtiaga, Joseba Derteano Bilbao, Markel Onaindia Txabarri, eta Maialen Zuazubiskar Gallastegi.
**Maketazioa:** Eider Alberdi Bengoa.
**Zuzentzailea:** Mikel Azkarraga Etxegibel.

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028
Tirada: 11.500 ale

**Laguntzaileak:**

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Bizkaia foru aldundia diputación foral
Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

# Gazte alokairurako 7 etxeak martxoan jasoko ditu udalak

Faustegoienako etxeak hartzeko inskripzioa uda aurretik egin gura dute



Faustegoienako promozioa amaituz gero, 118 etxebizitza egongo dira eraikita. Horietatik 17 alokairura bideratuko dituzte.

**DURANGO** M.O.
Udalak Faustegoienan sustatutako kooperatiba erregimeneko promozioan, momentuz 42 etxebizitza daude eraikita, eta horietatik 7 dira udalak alokairurako kudeatzeko. Promozioa amaituz gero, 118 etxebizitza egongo dira eraikita, eta guztira 17 bideratuko lituzkete alokairura. 18 eta 35 urte arteko gazteek hartu ahalko dute etxea alokairuan, gehienez hiru urterako epean. Izan ere, udalaren helburua txandakatzea da, "aukera ahalik eta pertsona gehienei" emateko asmoz. Gutxienez bi urtez erroldatuta egon beharko dute.

Gobernu taldekoek esan dute azken hiru urteetan 230 gazteri diruz lagundu dietela alokairua ordaindu eta emantzipatu ahal izateko, eta horri gehitzen zaiola egitasmo hau, ez dela atal isolatu bat. Iaz Durango Alokairua izeneko programa ere martxan jarri zuten, merkatu pribatuko etxeei irtenbide bat emateko.Zabalduko Ditugu dinamikako kideek proiektu hori ez zuten begi onez ikusi, euren ustez errenta handiegia eskatzen duelako baldintza lez. Faustegoienako etxeen araudia egitean, gazteei parte hartzeko aukera ematea eskatu du EH Bilduk.

# Eusko Jaurlaritzak 200.000 euroko zorra du, EH Bilduren ustez

Koalizioak aurkeztutako mozioa ez da onartu

**DURANGO** M. Onaindia
EH Bilduren ustez, Eusko Jaurlaritzak Ondasun Higiezinen Zerga ordaindu beharko luke trenbide eta geltoki zaharreko lurrengatik, 2012az geroztik lurzoru hori urbanizagarri bihurtu delako, 2006an onartutako planaren arabera. Kalkulua eginda, ETSk (Jaurlaritzaren menpekoa den enpresa lurjabeak) urtean 50.000 euro ordaindu beharko lituzkeela dio koalizioak, lau urtean 200.000 beraz. Osoko bilkuran mozioa aurkeztu zuen, diru hori erreklamatzea eskatuz, baina ez zen onartu, Herriaren Eskubideak soilik babestu zuelako.

### "Ulertzen zaila"

Dani Maeztuk (EHB) gobernu taldearen kudeaketa kritikatu zuen. "Lau urtean ez duzue ezer egin. Oso zaila da ulertzen herritarrei OHZ eskatzea, eta gero gehien duenari ez kobratzea". Jorge Varelak (HE) ere herritarren aldea hartu zuen ahotan. "Lur horiengatik kobratu barik jarraituz gero, durangarrek ordainduko dute". Espazioaren eraberritzea geratuta egotea ere kritikatu du.

### Katastroari abisua

PPk mozio alternatibo bat aurkeztu zuen EAJ eta PSE-EEgaz adostuta, eta horixe atera zen aurrera. Testuan diotenez, Jaurlaritzak egin beharko luke lurren aldaketa juridikoa, eta baita partzelazio berria ere. Hori egitean, katastroari abisua emango diote baldintza berriak kontuan hartzeko. Hala ere, ohartarazi dute espazio osoa ez dela egongo OHZren eraginpean, "trenbide-erabilera izaten jarraituko dutelako lurperatutako trenbidearen gainean dagoen lurrak, segurtasunerako tarteak eta tren geltoki osoak, eta parke publikora bideratutako lursailen (50.000 m2) titularra ere udala delako".

## Autobusa jarri dute Euskaraz bizi egunerako

**DURANGO** M.Z.
Martxoaren 18an Arrasaten ospatuko duten zortzigarren Euskaraz bizi egunera joateko autobusa jarriko dute Durangon. Antolatzaileek jakitera eman dutenez, autobusa 11:00etan irtengo da Madalenako autobus geltokitik, eta Durangora buelta goizaldean egingo dute, 02:30 aldera. Autobuserako eta herri bazkarirako izen-ematea Plateruenean eta Intxaurren egin ahalko da, martxoaren 16a baino lehen.

## Institutua logo berri bila dabil, lehiaketa bidez

**DURANGO** M.O.
2017-2018 ikasturtean 50 urte beteko ditu Fray Juan Zumarraga Institutuak, eta logo berri bat aukeratzeko lehiaketa sortu dute. Egungo logoak 15 urte ditu, eta ikastetxeko arduradunek uste dute berritzeko ordua dela, urtemuga aprobetxatuta. Apirilaren 30era arte aurkeztu ahalko dira ideiak, eta 1.500 euroko saria egongo da jokoan. *durangobhi50@gmail.com* helbidera bidali behar dira lanak.

# Jesuitak ikastetxekoak, Europako topaketen buru

European Youth Parliament topaketa izango da



Zubizarreta, Díaz eta Zabala, talde argazkian.

**DURANGO** M.O.
Zapatuan eta domekan European Youth Parliament erakundeak urteroko topaketa egingo du, kasu honetan Bilbon. Durangoko Jesuitak ikastetxeko hiru ikasle antolatzaile lanetan ibiliko dira bertan; Nerea Zubizarreta, Izaro Díaz eta Candela Zabala dira, hain zuzen.

Batxilergoko 2. mailako ikasleak dira hiru neskak, eta iaz Mallorcan (Herrialde katalanak) burututako topaketan izandako "parte-hartze onaren ondorioz" hautatu dituzte antolatzaile zereginerako, ikastetxeko ordezkarien esanetan. Gainera, Zabalaren kasua berezia da, *Head Organiser* edota antolatzaile-buru izango delako.

**Albisteak** eta **agenda**, bizkor eta eskura.
**Telefono gida** osatuena: zuzenean deitzeko aukera.
**Parte hartu**, galderak eginez, erantzunak lortuz.
**Pertsonalizatu**, zure herria aukeratuz.
**DESKARGATU DOAN !**



anboto.org MUGIKORREAN
App Store
Google Play

UXARTE
SAGARDAOGINTZA
Montorra, 6 ZORNOTZA - Tel.: 946 308 815
www.uxarte.com



ZABALIK OSTIRALETAN ETA ASTEBURUETAN
ASTEAN ZEHAR ENKARGUZ
Gutxienez 15 laguneko taldeentzako

# “Bizkaian eragin gura badugu Bizkaitik izan behar da, eta lan hori egiteko prest gaude”

ANBOTOko zuzendariak Urko Aristiren lekukoa hartu du, asteon, Tokikomeko gidaritzan



Eibarko Markeskua Jauregian astelehenean egin zuen Tokikomek bere urteko batzar nagusia.

**DURANGALDEA** M. Onaindia

**Jone Guenetxea ANBOTOko zuzendaria Tokikom tokiko hedabideen bateraguneko presidente izendatu dute. Guenetxeak Urko Aristiren lekukoa hartuko du. 2017an jauzi kualitatiboa emango duela aurreratu du Tokikomek bere batzar orokorrean.**

**Ardura berriek beti eman ohi dute bertigo apur bat. Hala ere, proiektuan sinisteak laguntzen du.**

ANBOTOk Tokikomen sorreran parte hartu zuen. Hasiera-hasieratik tokikoon indarrak batzearen garrantzia argi izan dugu. Urteetan ereiten aritu garenaren uzta jasotzen ari gara orain, beraz sinesten genuen proiektu hori errealitate bilakatu da. Bestalde, bertigoa ematen du, bai. Gainera, zaila izango da Urko Aristik eman duen maila berdintzea. Baina lan-taldean gustura dihardut eta jende oso profesionala dut inguruan. Bestalde, Tokikomek Bizkaian eragin gura badu Bizkaitik izan behar da, eta lan hori egiteko prest gaude.

**Tokiko hedabideen eragina edo balioa gutxietsi izan dute hainbatek. Zer iritzi duzu?**

Egia da badela guk egiten dugun kazetaritza gutxiesten duenik. Adibide erraz bat jarriko dizut. Durangoko bonbardaketaren inguruan azken urteetan hedabide handiagoek berba egin dute. Baina, horri buruz inork idazten ez zuen urteetan, badakizu gai hori nortzuk landu dugun? Tokikook. Eremu bakoitzeko aktualitatea bertatik bertara ezagutzen dugunok eta arlo bakoitzeko kontaktuak ditugunok geu gara. Bakoitza bere esparruan, beste inor heltzen ez den lekuetara heltzen gara. Errealitatearen gertuko ikuspuntu horrek bere balioa dauka. Bestalde, euskararen normalizazioan eta transmisioan egiten dugun lana ere aintzat hartzekoa dela esango nuke.

**Zer erronka izango ditu ANBOTOk?**

Tokikomeko hainbat proiektugaz bat egin dugu, eta, ildo horretatik, 2017a aldaketen urtea izango da. Edizio sistema bateratua jarriko dugu martxan, eta, horrela, lan prozesuak eraginkorragoak izango dira. Formazioa ere 2017ko helburuetako bat da, bai kazetaritza arloan, bai kudeaketan eta alde komertzialean. Iaz kudeaketa aurreratuaren programan ere sartu ginen, eta aurten, gai horretan sakondu gura dugu. Elkarte bat garen arren, kudeaketan ikuspuntu enpresariala aplikatzea garrantzitsua dela uste dut.

**Kazetaritza egiteko sasoi zailak baina interesgarriak direla esango nuke, eta euskaraz.**

Digitalizazioak iraultza eragin du hedabideetan, txiki zein handi. Informazioa kontsumitzeko ohiturak aldatzen ari dira sare sozialekin eta mugikorrekin. Aldaketa horrek bide berriak urratzeko aukera ematen du, eta euskaraz. Hala ere, webguneetako negozio eredua garatzeko dago oraindik.

## Zea Maysek kontzertua eskainiko du zapatuan

**OTXANDIO** J.Derteano

Zea Mays musika talde bilbotarrak kontzertua eskainiko du asteburu honetan Otxandioko Gaztetxean. Zapatuan izango da, 23:00etan. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, 20:00etan irekiko dituzte ateak, eta orduan eskuratu ahal izango dira sarrerak . Kontzertua zuzenean ikusi ahal izateko sarrera 7 euro izango da.

Aiora Rementeriak gidatzen duen taldea 1997an sortu zen, eta aurten 20 urteko ibilbidea ospatzen ari da. Iazko urte amaieran ‘Harro’ izeneko diskoa kaleratu zuten.

**Jaietako herri batzarra**

Bestalde, Otxandioko Jai Batzordeak gaur 18:30ean udaletxean egingo duen batzar irekian parte hartzeko deia egin du. Herritarren ekarpenak jaso gura dituzte. “Denen ekarpen txikiek jai herrikoi handiak egiten dituzte”, azaldu dute deialdian.

## Organikoa biriziklatzeko deia egin du Garaiko Udalak

**GARAI** M. Onaindia

Hondakin organikoa birziklatzeko kontainer marroiak ipini dituzte Garain, Amankomunazgoaren eskutik, eta horiek erabiltzeko deia egin du udalak bando bidez. Ingurumenaren aldeko dinamikan parte hartu gura dutenek 94 623 25 22 telefono zenbakira deitu behar dute, edota *organikoa.mdurango@bizkaia.org* helbide elektronikora idatzi. Udalak ekimenaren aldeko apustua egin du, eta herritarrak animatzea gura du.

Izan ere, Amankomunazgoak fase berri bat zabaldu du organikoa batzeko kanpainan. Aurretik beste fase bi garatuta, guztira 1.700 familiatik gora dabiltza birziklatzen. Sisteman parte hartzeko, ontzi bat, poltsa konpostagarriak, kaleko kontainerra zabaltzeko giltza eta informazioa ematen dituzte.

## Sahararrei laguntzeko merkatu solidarioa

Iurretako Institutuan batutako 361,11 euroak Elorrioko Lajwad elkarteari eman dizkiote



Lajwad elkarteko ordezkariei eman diete batutako dirua.

**IURRETA** A. Basauri

Elorrioko Lajwad Saharaaren lagunen elkarteari laguntzeko asmoz, elkartasun merkatua antolatu dute Iurretako Lanbide Heziketa Institutuko Administrazio Kudeaketako ikasleek. Guztira, 361,11 euro batu dituzte Saharara bideratzeko.

Iazko ikasturtean abiatu zen lehenengoz ekimena. Orduan, Angelman sindromearen elkarteari laguntzeko antolatu zuten merkatu solidarioa, eta 613 euro batu zituzten. Orduan ere, elkarteari zuzenean eman zioten lortutako dirua. Oraingo honetan, bajatu egin da partehartzea. Hala ere, emaitza positiboa izan dela jakinarazi dute institutuko ordezkariek.

**Elkartasuna landuz**

Irakasten diren edukietan zeharkakotasuna sustatzea da Iurretako Institutuaren oinarrietako bat. Halaxe azaldu dute ikastetxeko arduradunek, eta horren barruan landutako baloreetako bat elkartasuna da.

## Tramiteetarako gidaliburua sortu du Iurretako Udalak

**IURRETA** A. Basauri

Herritarrek gehien eskatzen dituzten administrazio-prozedura guztien oinarrizko informazioa era sistematiko eta antolatuan jasotzen duen tramiteen gidaliburua sortu du udalak. Gidaliburua paperean dute, dagokien fitxekin. Baina webgunera ere igo dute, herritarrek erabil dezaten. Zazpi arlotan banatuta, 100 izapidetik gora jaso dituzte.

> Gidaliburua paperean dute. Baina webgunera ere igo dute, herritarrek erabil dezaten

Herritarrek udalagaz duten harremana errazteko egin da gidaliburua, eta edozein kudeaketatan — erroldagaz lotutako tramiteak, diru-laguntza eskariak edo obra txikietarako baimenak eskatzeko, adibidez— eman beharreko urrats zehatzak azaltzen dira, azaldu duten moduan.



Mitxel Etxebarria.

## Mitxel Etxebarria EAJko zinegotziak kargua utzi du

**ZORNOTZA** J.D.
Mitxel Etxebarria Euskara, Kultura eta Kirol arloko zinegotzia izan da EAJ alderditik legegintzaldi honetan. Baita Ametx Erakundeko presidentea ere. Joan zen asteko udalbatzarrean jakinarazi zuen kargua utziko zuela, lan kontuengatik. Athletic futbol taldeko marketing zuzendaria izango da aurrerantzean. Bere tokia 30 urtez Larrea eskolako zuzendari izan den Luciano Martinezek hartuko du.

# Lehen berba euskaraz, udaletik herritarrenganako harreran

### Udal barruan euskararen erabilera indartzeko hartu duten irizpide bat da



Udalean euskararen erabilera handitzea bilatzen du planak.

**ZORNOTZA** J.Derteano
Udal jardueretan euskara normalizatzeko plana aho batez onartu dute udalbatzarrean. Plan honek udalak eta bertako langileek barneko harremanetan zein kanpokoetan euskararen erabilera handitzeko jarraitu beharreko irizpideak jasotzen ditu. Irizpide bat honako hau da: herritarrekiko hartu-emanetan lehenengo berba beti euskaraz izatea.

Herritarrei begirako arreta duten sail denek euskaraz hasiko dute hartu-emana herritarragaz. Ondoren, herritarra bera izango da hizkuntza aukeratuko duena, euskaraz jarraituz edo gaztelaniara aldatuz. Orain arte ere udal barruko dinamika horixe izan dela adierazi du Andoni Agirrebeitia alkateak, baina, aurrerantzean, Planean jasota geratuko da. Xabier Irakulis EH Bilduko zinegotziak prozesu honetan "subjektu aktibo" izateko eta eskaerak "euskaraz egiteko" eskatu zien herritarrei udalbatzarrean.

Euren hizkuntza eskubidea urratua izan dela sentitu duen herritarrak kexa jartzeko aukera izango du udaleko webguneari gehituko dioten atal batean zein udaletxean eskuragarri egongo den kexa orrian.

**"Ohitura aldaketa"**
Gaur egun langile gutxi daude euskaraz ez dakitenak, eta epe laburrean langileen %100 izango da euskalduna, Agirrebeitiaren esanetan. Baina hori horrela izanda ere, udal barruko gune batzuetan hartu-emanetan euskararen erabilera "baxua" dela azaldu du. Planak "ohitura aldaketa" bat bilatzen du arlo horretan, Agirrebeitiak azaldu duenez.

## Jaien inguruko herritarren ekarpenak jasoko ditu udalak

**ZORNOTZA** M. Onaindia
Herritarrek jaien gainean duten iritzia jakin gura du udalak eta, horretarako, prozesu parte-hartzaile bat abiatu du. Mota honetako prozesu bat egiten duten lehenengo aldia izango da.

Parte hartzeko hiru modu aurreikusi dituzte. Lehenengo eta behin, herritar guztiei galdetegi bat utzi diete postontzian. Galdetegia jaso ondoren, zornotzarrek beraien iradokizunak Zelaieta Zentroan utzi ahal izango dituzte, martxoaren 17ra arte. Zornotzako Udaleko web orriaren bidez egiteko aukera ere izango dela azaldu dute.

> Herritarrei galdetegi bat banatu diete postontzietan hainbat gairen inguruko iradokizunak jasotzeko

Horrez gainera, eztabaidarako hiru mahaira deituko dituzte herriko kultur eta kirol elkarteak, dendari eta ostalariak, gazteen elkarteak eta guraso elkarteak. Azkenik, telefono bidezko inkesta bat egingo dute, herritarrekin aurreko prozesu bietatik ateratako ondorioak berresteko.

## Korrikara begira motorrak berotzen hasiko dira hilaren 17an

**MALLABIA** J.D.
Apirilaren 7an Korrika Mallabitik igaroko da, eta egun hori heldu aurretik, motorrak berotzen joateko hainbat ekintza antolatu ditu herriko Korrika batzordeak. Martxoaren 17an egingo dute aurkezpen soziala, 18:30ean hasita, Kontzejuzaharren.

Korrikako arropa eskuragarri jarriko dute, 2015ean Korrika Mallabitik igaro zenean Valentin Mugartzak ateratako argazkiak erakutsiko dituzte, Photo Call batean argazkiak atera ahalko dira eta Korrikaren gaineko dokumental bat eskainiko dute. Horregaz batera, kilometroak erosi dituzten mallabitarrekin familia argazkia aterako dute. Bertaratzen diren denentzat luntxa egongo da.

> Aurreko aldiko argazkiak erakutsiko dituzte, arropa eskuragarri jarriko dute… Kontzeju Zaharren

Hurrengo egunean ere badago zegaz gozatu. Martxoaren 18ko zapatuan bertso desafio bat prestatu du Gazte Taldeak. Tolosa-Gabiria desafioa 22:00etan hasiko da, Izar Gorri elkartean.

MONDRAGON UNIBERTSITATEA
#erronkarakoprest
GURE IKASLEEN AHOTAN

*"Lan ikaste programari esker irabazitakoak ikasketak ordaintzen lagundu dit"*

**Urko Pineda Olmo** durangarra Informatikako Ingeniaritza graduko 4.mailan ikasten ari da MONDRAGON UNIBERTSITATEko Goi Eskola Politeknikoan, Arrasateko campusean.



**MONDRAGON UNIBERTSITATEA aukeratzerakoan, zer hartu duzu kontuan: unibertsitatearen ospea, kokapen geografikoa, instalazioak, ingurukoen iritziak, ate ireki saio batean entzundakoa...?**
Mondragon Unibertsitatea Ingeniaritza arloan daukan ospea nabarmena da, eta instalazio berriak oso modernoak dira, baina nik bere metodologiagatik aukeratu nuen. Nire ustez ingeniaritza bat ezin da bakarrik liburuetatik ikasi … Hemen seihilabeteko bakoitzean praktika eta azterketa ugari egiten dira eta, seihilabeteko bakoitzaren bukaeran, proiektu erreal bat garatzen dugu.

**Eta bat dator espero zenuena eta gero bertan aurkitu duzuna?**
Bai, batzuetan azterketak teorikoegiak dira, baina aurkitu dudana bat dator espero nuenarekin.

**Graduko zein alderdi nabarmenduko zenuke?**
PBL metodologia noski, eta Lan Ikaste programa. Programa honek ikasketak lanarekin partekatzeko aukera ematen dizu. Nire kasuan, hiru urtez egon naiz lan egiten eta ikasten aldi berean eta irabazitako diruak ikasketak ordaintzen lagundu dit eta, gainera, esperientzia handia lortu dut.

**Eta irakasleekin eta beste ikasleekin harremana?**
Irakasleak oso gertukoak dira, eta ikasleekin harreman onak izan ditut beti. Asko eskertzen da irakasleen gertutasuna zalantzak argitzeko.

**Proiektuak dira ikaste-prozesuaren ardatzetako bat. Egindako proiekturen bat azalduko diguzu?**
3. kurtsoan Skynet deituriko PBL bat egin genuen. Proiektu honetan adimen artifizial bat garatu genuen, larrialdi zerbitzuen (112) automatizazioa lortzea helburu. Adimen artifizial honek kokapen geografikoa gordetzen zuen uneoro. Larrialdi bat gertatzerakoan, behar ziren errekurtsoak (anbulantziak, suhiltzaileak, eta abar) aukeratzen zituen eta larrialditik gertuen zeuden errekurtsoei abisua ematen zien. Larrialdiaren abisuen denbora-tartea bi minututik bi segundora murriztu zen.

**Praktikaldiak non eta zertaz ari zaren egiten kontatuko diguzu?**
Gradu bukaerako lana Oñatiko ALMIS enpresan burutzen ari naiz. ALMIS finantzen arloko informatikan espezializatua dago eta Informatikako Ingeniari lanak egiten ditut egunero: programak sortu, hobetu, eta abar. Oso gustura nabil eta asko ikasten ari naiz.

www.mondragon.edu/prest

# Maiatzaren 7ko herri galdeketari babesa adierazteko ekitaldia

Joan zen barikuan aurkezpena egin zuen Zaldibarko Gure Esku Dago taldeak



Hainbat herritarrek erantzun zioten Gure Esku Dago taldearen deialdiari.

**ZALDIBAR** Itsaso Esteban
Durangon, Zornotzan, Elorrion eta Abadiñon bezala, Gure Esku Dago dinamikagaz bat eginda, maiatzaren 7an Zaldibarren ere Euskal Herriaren estatus politikoari buruzko herri galdeketa egingo dute. Ekimen hori herrikideei aurkezteko ekitaldia egin zuten, joan zen barikuan. Hainbat herritarrek erantzun zioten eratu berri den Gure Esku Dago taldearen deialdiari. Izan ere, Zaldibarko askotariko elkarteak eta udalean ordezkaritza daukaten alderdi politiko guztiak gonbidatu zituzten barikuko aurkezpenera. Ekitaldi "xume eta herrikoia" izan zela azaldu dute antolatzaileek, baina bertaratu zen jendeak ilusio handia agertu zuela ere aipatu dute.

Erabakitzeko eskubidearen alde lan egiteko, zaldibartar talde anitza batu da Gure Esku Dago dinamikara, eta ekarpenak egiteko prest dauden herritar guztiei dei egin diete eurekin bat egiteko. Herrian zehar kartel bidez zein sare sozialetan iragarriko dituzten herri batzarretara gerturatzeko gonbidapena zabaldu diete herrikideei.

# Gaztetxearen 13. urteurrena, martxan

Martxoaren 6an beteko ditu Gaztetxeak 13 urte

**ZALDIBAR** I.E.
Astelehenean, martxoaren 6an, beteko ditu Zaldibarko Gaztetxeak 13 urte, eta egun horretan askari bategaz (18:00etan) eta txirringa-poteoagaz (19:00etan) ekingo diote urtemuga ospatzeko antolatu duten egitarauari.

Martitzenerako, Ion Andoni del Amo durangarraren *Party & Borroka* liburuaren aurkezpena antolatu dute, 18:30erako. Eguaztenean, Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira antolaturiko ekintzekin bat egingo du Gaztetxeak, eta eguenean pintxo-potea eta *Buah Txabal!* antzezlanaren emanaldia izango dira. Martxoaren 10ean, Hertzainak-en bertsioak izango dira entzungai, Txalainak taldearen eskutik.

Hurrengo zapatuan eta domekan ere bazkaria eta kontzertuak izango dira, ospakizunekin jarraitzeko.



Martxoaren 10ean joko du Txalainak taldeak.

# Ur-parkea eraberritzen hasi dira, 46.000 euroko inbertsioagaz

Asfalto-oihala konpontzeko lanetan dabiltza

**ABADIÑO** Joseba Derteano
Denboraren joanak eta iazko apiril inguruan jokatu zuten kirol proba batek Uribitarteko ur-parkeko asfalto-oihala zulatu zuten. Horri irtenbide bat ematea da Uribitarteko parkean egiten dabiltzan lanetako bat. Horrez gainera, inguruan jolas gehiago jarriko dituzte haurrentzat, zaldiko maldikoak eta lianadun kulunkak, esaterako. "Azpiegiturak hobetu gura ditugu, eguraldi ona datorrenean berriro ere Abadiñoko tokirik bisitatuenetakoa izan dadin", azaldu du Jose Luis Navarro alkateak.

Uribitarteko parkea 2011n inauguratu zuten, 188.000 euroko inbertsioagaz, eta 7.100 metro karratu hartzen ditu.



Haurrentzat jolas gehiago ipiniko dituzte.

## Katalamixonen udalekuetarako izen-ematea

**ABADIÑO** I.E.
Gaur hasi da Katalamixon Aisialdi elkarteak eskaintzen dituen udalekuetarako izen-ematea. 17:00etatik 19:00etara, elkartearen egoitzan (Trañabarren kaleko 1 eta 3 zenbakien arteko lokalean) eman ahalko da izena. Eskainiko dituzten 55 lekuak bete arte, hurrengo egunetan 634 451 776 telefono zenbakira deituta edo *katalamixon@gmail.com* helbidera idatzita apuntatu ahalko da.

17:00etatik 19:00etara, Katalamixon elkartearen Traña-Matienako egoitzan eman ahalko da izena

Uztailaren 22tik 31ra arte egingo dituzte udalekuak, Mendigorrian (Nafarroan), Lehen Hezkuntzako 3, 4, 5 , eta 6. mailetako ikasleei zuzenduta. 320 euroko prezioa daukate udalekuek. Bi neba-arrebak izena ematen badute, %5 gutxiago ordainduko dute, eta %10 gutxiago hiru apuntatuz gero.

# Gazteei begirako plana azalduko diete gurasoei

**MAÑARIA** J.D.
Udalak batzar batera deitu du, gaur, 13 eta 18 urte arteko gazte mañariarren gurasoekin. 19:00etan batuko dira, udaletxean. Bertan, herriko gazteek egindako eskaerak gauzatzeko zein plangintza diseinatu duten azalduko diete gurasoei. Izan ere, partaidetza prozesu baten ostean, biltzeko lokal baten premia plazaratu zuten gazteek, eta baita kanpoko gazteekin elkartruke programa bat garatzeko nahia ere. Asmo horiek gauzatzen hasteko, 5.000 euroko atala jaso dute aurrekontuan.

Udalak aholkularitza zerbitzu bat kontratatzeko asmoa du. Gaztelekuko araudia lantzen eta elkartruke programarako diru-laguntza eskaerak egiten lagunduko luke. Horren gaineko azalpenak emango dituzte.

## San Lorentzo ermita ingurua konpondu dute

**BERRIZ** M.Zuazubiskar
2016ko aurrekontu parte-hartzaileetan erabaki bezala, udalak San Lorentzo ermita ingurua konpondu du. Zaharkituta zeuden baranda eta jarlekuak aldatu dituztela eta irisgarritasuna bermatze aldera arrapala atondu dutela jakiranazi du udalak, prentsa ohar bidez. Hiru astez egin dituzten lanetara 9.000 euro bideratu dituzte

## Etxanon GR-228 ibilbideko iturria konpondu dute

**IZURTZA** J.D.
GR-228 ibilbidea Etxano auzotik igarotzen da. Auzo horretan iturri bat dago, eta urteetan ez zuen urik ematen. Gainera, iturria bera egoera txarrean zegoen. Udalaren eta Urkiola Landa Garapenaren artean iturria eraberritu eta ura beste hargune batera lotu dute. Beraz, edateko ura isurtzen du berriro iturriak.

# Lapurretak amaitzeko, ezohiko prebentzio plana dago martxan

## Azken hilabeteotan herriko hainbat taberna eta enpresatan egin dute lapurretan

**ELORRIO** J.D/M.Z

Azken asteetan Elorrion izan diren lapurretei amaiera emateko helburuagaz, udalak eta Ertzaintzak ezohiko Prebentzio Plan bat jarri dute martxan. Joan den ostiralean Durangoko Ertzain-etxean izandako bileran, Idoia Buruaga Elorrioko alkateak "Elorriorentzat eta elorriarrentzat arreta handitzea" eskatu zuen.

Horrez gain, Elorrion Ertzaintzaren etengabeko presentzia egotea, errepideko kontrolak gehitzea, epe mugagabean errekurtsoak handitzea eta ikerketak areagotzea onartu zuten batzarrean.

Abenduko azken astetik, lapurrek bost tabernatan —Batzokian birritan— lapurtu eta beste hirutan saiakera egin dute. Horrez gainera, hiru enpresatan ere sartu dira. "Azken egunotan Ertzaintza herriko kaleetatik dabil, eta, orain, behintzat, lo lasai egin dezakegu", aitortu du Luis Amilibia Batzokiko jabeak. "Azken lapurretak goizaldean egin dituzte, eta horrek ardura handia pizten zidan. Langileren bat lanera joan, eta lapurrekin topo egin zezakeela pentsatzeak beldur izugarria sorrarazten zidan", gaineratu du Batzokiko arduradunak.



Elorrioko kaleetan areagotu egin dute zaintza.

## Etxe hutsen alokairua bultzatu gura du udalak

**ELORRIO** M.Zuazubiskar

Elorrion alokairua bultzatzeko asmoz, herrian dauden etxebizitza hutsen jabeek Ondasun Higiezinen gaineko Zergan %50eko errekargua ordaindu beharko dutela hemendik aurrera jakinarazi du udalak.

Udalak esan duenez, etxebizitza hutsak alokairuan jartzeko bultzada eman gura diete elorriarrei. Gobernu taldeko kideek "etxebizitza duin bat izatea eskubide bat" dela adierazi dute prentsa ohar bidez. "Zoritxarrez, gaur egun desoreka itzela dago alokairu baten bila dabilen jendearen eta eskaintzen denaren artean, beraz, funtzio sozial hori ez betetzeagatik errekargu bat jarriko dugu", esan dute gobernu taldekoek.

## Bertakoak diren zuhaitzen alde egingo du udalak

**ATXONDO** M.Zuazubiskar

Orain arte herri basoetan egon diren zuhaitzak pinuak direla kontuan hartuta, eta hauek beraien gauza on eta txarrak dituztela ikusita, Atxondoko Udalak bertako zuhaitzen alde apustu egitea erabaki du.

Diputazioko baso zerbitzuko teknikariekin hitz egin ondoren, modu selektibo batean pinuak kentzea erabaki du udalak. "Bertako zuhaitzei tokia egin gura diegu, eta, horretarako, ditugun pinurik eskasenak kenduko ditugu. Botatzerako orduan kontu handiz ibiliko gara, ez dugu arraseko mozketarik egingo, eta, horrela, etorkizunean bertako eta berez ernetako zuhaitzak izatea lortuko dugu", aitortu du alkateak.

**DURANGALDEA ASTEON**

### Galdera erabakiko dute egueneko batzarrean

**ABADIÑO >** Martxoaren 9an, datorren eguenean, herri batzarrera deitu du Abadiñoko Gure Esku Dagok. 19:00etan hasiko da, Zelaietako Txanporta kultur etxean. Maiatzaren 7ko herri galdeketarako galdera aukeratuko dute, metodologia bidez. Galdeketa eguna prestatzeko lan taldeak ere sortu gura dituzte.

### Otsaileko iPad-a 64.311 zenbakiak irabazi du

**DURANGO >** *Salerosketak be euskaraz* ekimenari dagokion 27. iPad elektronikoa lortzeko zozketan 64.311 zenbakia izan da saritua. Pasipotx oinetako dendan banatu dute otsaileko zenbaki irabazlea. Badaezpada, ordezko zenbakia ere atera zuten martxoaren 1ean egindako zoketan: 65.842 zenbakia da.

### Korrikako egitaraua prestatzen hasi dira

**BERRIZ>** Herriko talde eta eragileak hasi dira martxoaren 29an Otxandion abiatuko den eta Berriztik apirilaren 7an, 21:00etan, igaroko den Korrikako egitaraua prestatzen. Antolatzaileek jakitera eman dutenez, hurrengo batzarra martxoaren 9an egingo dute, 19:00etan, herriko anbulatorio zaharrean.

**SEI HANKAKO MAHAIA**

**DANI MAEZTU**
EH Bildu



### Jakin dezazuen

Dakizuenez, 2012. urtetik aurrera Durangon trenak lurpetik pasatzen dira.

Jakin beharko zenukete, trenaren lurperatzearekin libre geratu diren lurzoruetan 554 etxebizitza eraikitzeko eskubidea daukala lurzoruaren jabeak, alegia, Eusko Jaurlaritzaren Eusko Trenbide Sareak enpresa publikoak. Horrela erabaki baitzuten PNVk, PPk eta PSEk 2006. urtean.

Aldiz, ez dakizue, baina nik esaten dizuet, higiezinen zerga, hots, durangar guztiek bere jabetzengatik (etxeak, lokalak eta lurzoruak batez ere) ordaintzen duten zerga arautzen duen arauak esaten duela, zerga hori ordaintzeaz salbuetsita egongo direla tren azpiegitura batengatik okupatuta dauden lurzoruak.

Egoera horren aurrean, jakin beharko genuke bi aukera daudela:

1. Higiezinen zerga kobratzea lehen trenak okupatzen zuen lurzoruaren jabeari. Berak atera ahal dituen etekinen arabera. 49.500€ urtean.
2. Legediaren interpretazio maltzur bat egin eta lurzoruaren jabeari eta lurzoru horretan supermerkatu bat, aparkaleku bat edota apustu etxe bat duten enpresei higiezinen zerga ez kobratzea.

Ostegun honetako osoko bilkuran, PNVk, PPk eta PSEk erabaki dute, gainerako herritar guztiek ez bezala, lurzoru horren jabeak eta negozio horien jabeek ez dutela zergarik ordainduko.

Hau guztia jakin dezazuen kontatzen dizuet, beste barik.

**IRITZIA**

astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:**
Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

**DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO**

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

ANBOTOk ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitakoen eta emandako iritzien erantzukizunik.



Berbaz

**Iraia Bejarano Gil** (1994) eta **Ane Arbeo Sarriugarte** (1993) | Zabalduko Ditugu dinamika | Durango



# "Gazteriak bereziki egoera prekarioa bizi du, eta plangintza berezitua behar du"

Gazteentzako alokairu sozialerako programa sortzeko mozioa sartu du 'Zabalduko Ditugu'k Durangon

BERBAZ Aitziber Basauri

**2015ean ekin zioten etxebizitzaren inguruko gogoetari 'Zabalduko Ditugu' dinamikako gazteek. Durangon 1.576 etxe huts daudela salatu zuten, eta ikasturte berriari begira etxe horietako batzuk zabaltzea dute erronka. Durangoko Udalean gazteentzako alokairu sozialerako programa bat sortzea proposatuz mozioa aurkeztu dute, udalbatzarrean eztabaidatu dezaten. Aurretik, udal taldeekin batu gura dute. Martxoaren 9rako elkarretaratzera ere deitu dute udaletxean, 18:30ean.**

**Durangon dauden etxe hutsak apurka-apurka zabaltzea duzue helburu. Zeintzuk pauso emango dituzue?**

**Ane Arbeo:** Gazteentzako alokairu soziala eskatuz mozioa aurkeztu dugu udaletxean, ikusita etxe hutsak daudela —Durangon etxebizitzen %12 dira—, gazteon egoera nahiko eskasa dela, eta gurasoen etxetik irtetea kostatzen zaigula. Gainera, uste dugu etxebizitzaren arazoari aurre egiteko udalak zabalik dituen bideak ez direla nahikoa.

**Gazteentzat alokairu soziala. Hori da zuen aldarria. Zeintzuk dira zuen premiak gaur egun?**

**Iraia Bejarano:** Kontuan hartu behar da lan munduan ere prekarioa dela gure egoera. Lan baldintza eskasak ditugu. Askok ez dugu kontraturik, eta diru sarrerak edukita ere ezin ditugu justifikatu. Adibidez, Durangoko Udalak bultzatutako Durango Alokairua egitasmoan, hainbat baldintza eskatzen dizkigute, eta nahiko beteezinak.

**A.A.:** Durango Alokairua ez da gazteentzat sortutako egitasmoa, durangar guztiei dago zabalik. Era berean, besteak beste, urtean 12.000 euroko diru sarrera izatea eta urtebeteko kontratua eskatzen dute. Halako iraupena duen kontratudun gazterik ez dago gaur egun. Esan beharra dago, herritar piloak eman zuela izena hasieran egitasmo horretan. Baina asko eta asko izan ziren atzera bota zirenak, ez zituztelako baldintzak betetzen. Beste alde batetik, badira gazteentzat etxebizitza alokatzeko diru-laguntzak ere. Hala ere, diru-poltsa bat dago lotuta, eta asko gara laguntza hori behar dugun gazteak. Beraz, heltzen zaigun dirua eskasa da.

**2014tik 2016ra 230 gazteri eman zaie etxebizitza alokatzeko diru-laguntza Durangon.**

**A.A.:** Bai. Hala ere, berdin dio zenbat gaztek ematen duten izena, diru bat dago horretarako. Berez, alokairuaren %50era arteko diru-laguntza lortu daiteke, baina inoiz ez da horrenbeste. Askok ematen dugu izena, eta bakoitzari heltzen zaigun dirua ez digu gurasoen etxetik irteten laguntzen. Laguntza horiek, gainera, alokairua ordaintzeko balio dezakete, baina ez emantzipatzeko. Gazteriak bereziki egoera prekarioa bizi du, plangintza berezitu bat behar du, eta ez daukagu.

**I.B.:** Gainera, etxebizitzari lotutako laguntzak dira. Hau da, hiru lagunek alokatuz gero etxebizitza, laguntza bakarra lukete.

> *"Askok ez dugu lan kontraturik. Diru sarrerak edukita ere, ezin dugu justifikatu"*

> *"Herriko ordezkari zuzen legez udalarena ere bada etxebizitza eskumena"*

**Bankuek dituzten etxe hutsak udalak kudeatzea eta udalak izan ditzakeen etxe hutsak alokairu sozialera bideratzea proposatzen duzue.**

**I.B.:** Bai. Beste herri batzuetan egiten dute. Egingarria da, ez da utopia bat.

**A.A.:** Bilbon, adibidez, akordio bat lortu dute udalak eta banku batek. Hartara, berak dituen etxebizitza horiek erabiltzen utzi dio bankuak udalari, eta azken horrek gazteentzat bideratu ditu. Bestalde, Durangoko Udalak badauka modua bere esku dituen etxe hutsak gazteentzat zabaltzeko. Oraintsu iragarri du hala egingo duela. Hirugarren puntu batean, jabetza pribatuko etxebizitza hutsak ere aipatzen ditugu. Hori zailagoa da kudeatzea, baina udalak kontzientziazio eta bitartekari lana egin beharko lukeela uste dugu.

**Gazteentzako alokairuko zazpi etxebizitza izango dira prest martxoan, Faustegoienan.**

**A.A.:** Pozgarria iruditzen zaigu albistea, baina bitxia ere bai mozioa sartu eta berehala iragarri izana. Zazpi etxek ez dute arazoa konponduko. Hala ere, berri ona da, batez ere ez direlako baldintzak zehaztu. Zazpi etxebizitza dira — etorkizunean 17 izango direnak—, gehienez hiru urtean alokatu daitezke eta 18-35 urte bitarteko gazteentzat dira. Ordaindu beharrekoa, lan kontraturik beharko den... ez da zehaztu. Ondo deritzogu horri, baldintza horiek zehazteko eztabaidan geuk ere lekua izatea espero dugulako.

**Alokairu sozialerako baldintzak ere proposatu dituzue?**

**A.A:** Bai. Urtean, gehienez, 15.000 euroko diru sarrera duten 18-30 urte arteko gazteei legoke zuzenduta egitasmoa, eta gazte bakoitzak, gehienez, 125 euroko alokairua ordainduko luke. Etxebizitza egoera egokian egotea ziurtatu beharko luke udaleko teknikari batek; baita zenbat pertsonentzako etxebizitza den zehaztu ere. Honen bitartez udalak jasotako dirua, berriz, etxebizitza politikara bideratzea proposatu dugu, eta plana diseinatzeko orduan gazteok ere parte hartzea eskatu.

**Gazteek etxebizitza eskuratzea sustatzeko politikan "aurrerapausoa" eman dela esan dute. Zer deritzozue?**

**A.A.:** Durangon etxebizitzen %12 hutsik daudela ikusita, eta EAEn emantzipazio adina 30 urtean dagoela, hori esatea errealitateagaz bat ez datorrela uste dugu. Lan horren fruiturik ez da ikusi behintzat. Gu lan horretan laguntzeko prest gaude, eta proposamen zehatz bat dugu.

**Gobernu Taldeak esan du etxebizitzaren eskumena beste erakunde batzuena dela.**

**A.A.:** Herrian etxeen %12 hutsik egotea eta gazteak gurasoen etxetik ezin irtetea udalaren eskumena da. Etxebizitza eskubide subjektiboa dela uste dugu, hezkuntza edo osasuna diren moduan, eta administrazio publikoak hori bermatu behar du. Herriko ordezkari zuzen legez udalarena ere bada eskumena.

Kultura

# Musika klasikoaren Bilboko jaialdirako aukeratu dituzte

## 'Musika-Música' jaialdian arituko da Durangoko Musika Eskolako ikasleen ganbera-orkestra

**> MUSIKA** Itsaso Esteban

Durangoko Bartolome Ertzilla Musika Eskolako 18 ikaslek osaturiko orkestrak hirugarren urtez parte hartuko du Bilboko *Musika-Música* jaialdian. Jaialdian parte hartzeko izena ematen duten EAE eta Estatuko Musika Eskolen artetik hautaketa bat egiten du urtero jaialdiko antolakuntzak, eta hirugarren aldia da Durangoko Bartolome Ertzilla aukeratu dutena.

> 13 eta 30 urte arteko 18 ikaslek osatzen dute gaur Bilbon joko duen ganbera orkestra durangarra

13 urtetik 30 urte ingurura arteko musika ikasleek osaturiko ganbera-orkestra da, gaur, Bilbon arituko dena. Biolin, biola, biolontxelo, kontrabaxu eta pianoak osaturikoa. Euskaldunako kioskoan jardungo dira gaur, 19:30ean, Eunate Zarrabeitiaren zuzendaritzapean.

Txekiar Errepublikako Bohemia eskualdeko sortzaileek musika klasikoren historian izan zuten eragina da, aurten, *Musika-Música* jaialdiaren ardatza, eta Durangoko Musika Eskolako orkestrak Smetana eta Dvorak konposatzaile bohemiarren obrak eskainiko ditu bertan.

### Ezagutzera emateko aukera

"Jaialdi hau ikasleekin Durangotik kanpo jardun eta gure ikastetxean egiten dugun lana gure herritik kanpo ezagutzera emateko aukera ederra da", azpimarratu du Zarrabeitia irakasle eta orkestrako zuzendariak. Bilbokoa musika klasikoa herritarrengana gerturatzea helburu duen jaialdi garrantzitsua dela azpimarratu du Eunate Zarrabeitiak. "Esfortzu handia egiten dute antolatzaileek; kontzertu benetan onak eskaintzen dituzte asteburu osoan, prezio merkean, gainera".

Maite Azueta, June Iturriaga eta Angela Urigüen dira gaur Bilbon arituko den Durangoko orkestrako kideetako batzuk.



Orkestrako kideak, eguaztenean egin zuten entseguaren ostean.

Hirurak dira biolinistak, eta hirurek jo izan dute jaialdi honetan lehenago ere. Aho batez diote esperientzia "oso polita" dela.

### Erroka handia

"Gauza berezia da horrelako jaialdi batean jo ahal izatea", dio 16 urteko Maite Azuetak. Bartolome Ertzillan Erdi Mailako graduko bosgarren mailan dabil Azueta, eta kontatu du urte amaieratik ibili direla gaurko emanaldia prestatzen. Erronka handia izan da. "Oso gustuko ditut joko ditugun kantak, baina nahiko zailak dira batzuk".

Erdi Mailako graduko hirugarren urtean dabil 14 urteko June Iturriaga taldekidea. "Oso esperientzia polita eta interesgarria da *Musika-Música* jaialdian parte hartu ahal izatea", dio Iturriagak, "nahiz eta Euskalduna jauregiak inpresioa ere egiten duen". Jaialdian parte hartzeagatik, programako emanaldi guztiez gozatu ahalko dute ikasleek, doan, eta aukera hori aprobetxatuz, Euskadiko Orkestra Sinfonikoa entzutera joatea gustatuko litzaioke Iturriagari.

18 urteko Angela Urigüenek ere biolina jotzen du, eta graduko laugarren maila egiten dabil Durangoko Musika Eskolan. Gaur Bilbon eskainiko duten Smetana eta Dvoraken musika "bereziki polita" iruditu zaiola dio Urigüenek, "melodia oso politeko kantak dira, musika herrikoia oinarri dutenak".

# Dantzaz taldeak 'Harri, orri, ar' obra estreinatuko du Elorrion

## Bihar, 20:00etan eskainiko du Dantzaz taldeak bere azken sorkuntza lana



Bost nazionalitateko dozena bat dantzarik osatzen dute Dantzaz konpainia.

**> DANTZA** Itsaso Esteban

Jorge Jauregi, Paolo Mohovich eta Les Vikings taldeko Sara Olmo eta Victor Launay koreografoen pieza bana biltzen duen *Harri, orri, ar* ikuskizuna ekarriko du Dantzaz konpainiak Elorriora. Bihar, 20:00etan estreinatuko dute lan berri hori egoitza Errenterian daukan Dantzaz konpainiako bost nazionalitateko 12 dantzariek.

Les Vikings taldeko Sara Olmoren eta Victor Launayren lana da ikuskizuneko lehenengo koreografia: *Historia de un segundo*. Segundo bakar batean izan ditzakegun burutazioei buruz dihardu lanak, eta Europako zirku garaikidea eta akordeoiaren soinua ditu osagai.

*Complete surrender* da bigarren pieza, Jorge Jauregirena. Oreka bilatuz elkar jotzen duten eta besarkatzen diren gorputzak irudikatzen dituzte koreografia horretan dantzariek.

"Sormenaren eta jolasaren aukeren aldarrikapena" da, bestalde, *Harri, orri, ar* emanaldiko azken pieza. Dantza eta gastronomia uztartzen ditu.

### Sukaldarien sorkuntza

Paolo Mohovichen koreografia lana du *Harri, orri, ar* piezak, eta Euskal Herrian bizi den Enrique Fleischmann sukaldari mexikarraren sormen lana ere biltzen du. Oholtzan baliatzen duten "atrezzo jangarria" —janariagaz egindako paper eta harriak— Fleischmannek eta bere taldeak euskal sukaldaritzako elementuekin egindakoa da. "Jolas tradizionalean bezala, hauskortasunak —paperak— harria garaitu dezakeela" adierazteko, mariachi musika eta zirkuko elementuak ere baliatzen ditu ikuskizunari amaiera ematen dion pieza horrek.

Biharko estreinaldiaren osagarri, bestalde, Dantzaz konpainiaren eskutik tailer batean parte hartzeko aukera izan dute, aste honetan, Elorrioko Institutuko DBHko 12 ikaslek.

# 'Andalucía FM 28.02' ikuskizuna eskainiko dute, Durangon, bihar

San Agustin kulturgunean egingo dute, bihar, 19:00etan, Durangoko Andaluziarren zentroan sorturiko ikuskizun berriaren emanaldia



30 lagunek parte hartuko dute emanaldian dantzari, antzezle eta musikari lanetan.

**> EMANALDIA** Itsaso Esteban

Andaluziaren Eguna izan da asteon, otsailaren 28an, eta egun horren bueltan askotariko ekintzak antolatu ditu Durangoko Andaluziarren zentroak. Bihar, 19:00etan, lurralde hartako istorio eta doinuak bilduta sortu duten *Andalucía FM 28.02* ikuskizuna eskainiko dute, San Agustin kulturgunean.

Dantzari, antzezle eta musikari lanetan, 12 eta 60 urte arteko 30 lagunek parte hartuko dute emanaldi horretan. Azarotik dabiltza sorkuntza lan berri honetan buru-belarri sartuta, eta gogotsu erakutsiko dute, bihar.

**Irratsaio bat ardatz**

Irratsaio bat da *Andalucía FM 28.02* ikuskizunaren ardatza, eta garbitzaile moduan lan egiten duen jatorri andaluziarreko emakume bat du protagonista, ipini duten antena berri bati esker bere jaioterriko irratsaio hori entzun ahalko duena. Ikuskizunean, beste hainbat espaziotan ere zabalduko dute *Andalucía FM 28.02*-ren uhinek kultura andaluziarra: auzotarrak elkartzen diren patioan, dendan, eskolan, zein ile-apaindegian, esaterako. Irratitik datozen doinuek dantzara eta kantura bultzatuko dituzte leku horietan elkartutakoak.

**'Flamencura' tailerra**

Biharko San Agustingoaren ostean, beste proposamen batzuk egingo ditu Andaluziarren zentroak. Martxoaren 18an, tailer bategaz amaituko dituzte asteotan burutu dituzten ekintzak, elkartearen egoitzan. *La famencura todo lo cura* izenburua du tailerrak, eta ume, gazte zein helduei zuzendurikoa da. Taldekako dinamiken, umorearen eta jolasaren bitartez, kantuan eta dantzan jardungo dira tailerrean izena ematen dutenak. Tailer horretan flamenkoa baliatuko dute bitarteko pedagogiko eta terapeutiko legez.

Izena eman beharra dago martxoaren 18ko *La famencura todo lo cura* tailerrean parte hartzeko: 672415663 telefono zenbakira deituta eman daiteke izena.

# Literaturaz, Hitzez eta Ahotsez, Bibliotekan

Martxoaren 9an egingo dute lehenengo solasaldia

**> LITERATURA** Itsaso Esteban

Aurreko hiru edizioetan bezala, euskal literaturako obren inguruan elkartzeko hainbat hitzordu antolatu ditu Hitzez eta Ahotsez taldeak. Aurten, bidaiei buruzko literatura da ardatza. Miren Agur Meaberen berbaldi bategaz hasi zen aurtengoa, eta solasaldi dialogiko bat izango da hurrengo hitzordua. Martxoaren 9an, 19:00etan, egingo dute lehenengo solasaldi hori, Durangoko Bibliotekan. Honako irakurgaion bueltan jardungo dira: Patxi Zubizarretaren *Asia*; Juanra Madariagaren *Katmandu, Nepalgo hiriburua*; Kattalin Minerren *Nola heldu naiz ni honaino*; Kirmen Uriberen *Bidaia Kaiera. Bhutan*; Ekhine Eizagirreren *Astindu hegoak;* eta Annie Vivantiren *Utz nazazu joaten*. Irakurgaiek sortutako sentipen eta gogoetak partekatuko dituzte bertaratzen diren literaturzaleek.

Maiatzaren 5eko irakurraldi herrikoiagaz borobilduko dute 2017ko Hitzez eta Ahotsez.

# 'Guernica 1913' obraren azken bi emanaldiak

Abadiñoko Errota kultur etxean arituko dira, bihar

**> ANTZERKIA** Itsaso Esteban

Bihar Abadiñon, eta martxoaren 12an Eibarren eskainiko du Banarte taldeak *Guernica 1913* obra azken aldiz. 20:00etan hasiko da, bihar, Errota kultur etxeko emanaldia, eta Eibarko antzerki jardunaldien barruan eskainiko dute azkena, martxoaren 12an, 20:30ean.

2013. urtean estreinatu zuen Banartek antzezlan hori Gernikan, eta ordutik Estatuko 30 antzokitan baino gehiagotan eskaini dute.

Benetako gertakarietan oinarriturik dago *Guernica 1913* obra. XX. mende hasieran jazotako klase borrokari loturiko gertaera historikoa du antzezlanak oinarri. Lantokia Eibartik Gernikara aldatzen dietenean, Busturialdera lan egitera eta bizitzera doaz protagonistak. Antagonikoak diren bi mundu elkartzen dira Gernikan: oso tradizio eta erlijiozalea zen nekazaritza mundua, eta industria iraultzatik sortutako langile mugimendu libertarioa.

## GEURE DURANGALDEA

**LIBE MIMENZA CASTILLO**
Kazetaria



**Mmmmmm!**

Martxoan gizonek oporrak hartzen dituzte; bai, behintzat, artistek. Mota askotako ekintzez osatutako egutegiak sortzen dituzte kultur programatzaileek, eta hilabetez (edo astebetez, edo egun batez, bederen) emakumeok gara lehen lerroen jabe. Maskota ez, protagonista.

Martxoan ere bada eztabaida: - M5ean Lilatoira noa! - Mmmm... emakumeak bakarrik? Milaka emakume bilduko gara Lilatoian, bai, 5.700dik gora hain zuzen, eta iaz baino 700 gehiagok eman dugun arren izena, oraindik ez gara hainbeste ere. Mesede egingo digu gainera Donostiak, eta goizean goiz izango da lasterketa, eguerdirako hiria garbi egon dadin. Marapiloa eramango dut nik bidaide ziurrenik domekan sabelean; zer sentitzen ote da estreinakoz horrenbeste emakumerekin batera taupadak sinkronizatzean?

Martxoan, Durangaldean, emakume-trans-bollerak bilduko dira *Frenorik gabe* bizikleta martxan. Morez jantzita, gizon eta emakume elkarrekin berdintasunaren sokan galapan Lilakrosean zein Milla morean.

Martxoan kontua ez da albokoak aluak jatea edo zakilak miazkatzea atsegin duen epaitzea, ezta enpresaburua fededuna, punkia edo beganoa ote den galdezka sailkatzea ere.

Martxoan ere mina soberan dugu. Miraririk ez dela gertatuko badakigu, horregatik, den-denok blaitu behar gaitu feminismoak.

Martxoan ernetzen da udaberria, erdi aldera berdintzen dira gaua eta eguna: orekak esna harrapa gaitzala! Masaje hutsa izan ez dadin aurtengoa. Makillajea kenduta ere maiteko baitugu martxorik gabeko egutegia.






# MAR TXOAK 8

## Andragunea inauguratuko dute Durangon

Bihar izango da ekitaldia > 14

## Elorrioko emakume artisten erakusketa zabalduko dute

10 emakumek erakutsiko dituzte lanak > 13

TRATU TXARREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEENTZAKO ARRETA PSIKOLOGIKOA ETA ZERBITZU JURIDIKOA

946 200 492

berrizko udala
Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa
Mancomunidad de la Merindad de Durango
BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



Añeketan lasterketan elkarri lekukoa emango diote herriko elkarteetako zenbait ordezkarik.

# Elkartasun lekukoa emanez, Berrizen parekidetasuna bultzatuko dute

Añeketan lasterketaren ondoren, zumba saioa egingo dute berriztarrek Olakueta plazan

**> BERRIZ** Maialen Zuazubiskar

Aurten ere, azken urteetan jende ugari batu duen Añeketan herri lasterketa egingo dute Berrizen, martxoaren 12an. Adin tarterik ez duen lasterketak 150 lagun inguru batu ditu azken edizioetan.

Añeketan lasterketaren zortzigarren edizioak parekidetasuna bultzatzea izango du helburu, kirolaren bitartez.

Ohikoa den bezala, emakume eta gizonen berditasunaren aldeko lasterketa Berrizburun hasiko da, 11:45ean, eta herriko hainbat kale zeharkatu ondoren, Olakuetan bukatuko da.

Beste urte batez, Añeketanen Berrizko elkarteen ordezkariek lasterketako lekukoa eramango dute eskuz esku, eta ibilbide osoan elkarteetako kideak egongo dira lasterketaren buruan.

**11:45ean hasiko da parekidetasuna bultzatu gura duen lasterketa**

Horrez gain, testigua hartzen duten elkarteek berdintasunaren inguruko mezu bat sartuko dute testiguaren barruan, eta lasterketa amaitzen denean, elkarteek idatzitako mezuak hartu eta mural batean jarriko dituzte Olakueta plazan. Antolatzaileek adierazi dutenez, elkarteetako kideek idatzi dituzten mezuak herritar guztiek irakurri ahal izango dituzte horrela.

Bestalde, azken urteetan egin den bezala, berdintasunaren alorrean egindako lana eskertzeko asmoz, herriko elkarte bi –oraindik ez dute sarituen berri eman– sarituko dituztela jakitera eman dute udaleko kideek.

### Zumba saioa

Egunari amaiera emateko, berriz, zumba saioa antolatu dute martxoaren 12rako. Añeketan lasterketa bukatu ondoren egingo dute saioa, Olakueta plazan.

Zumba saioan herritar guztiek parte hartu ahal izango dute, eta beraz, dantza egin gura duenak Olakuetan izango du hitzordua hurrengo asteko domekan, martxoaren 12an.

### Egitarau zabala

Martxoaren 12an hainbat ekitaldi dauden arren, beste hainbat egunetarako ere egitarau zabala antolatu dute Berrizen. Esaterako, martxoaren 8an, 19:00etan, kontzentrazio martxa egingo dute. Kontzentrazioa udaletxe aurrean hasi eta Urtiaga plazan bukatuko da.

Horren ostean, *Renaldo & Clara* taldeak kontzertua eskainiko du Kultur Etxean. Kataluniako boskoteak 20:00etan emango dio hasiera bere ekitaldiari.




# Zinegoak jaialdiko bederatzi film eskainiko dituzte Durangaldean

Bilboko gaylesbotrans jaialdiko bost film euskaraz eskainiko dituzte



Zinegoak jaialdiko aurkezpen argazkia.

**> DURANGALDEA** M.Zuazubiskar

Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, Bilboko gaylesbotrans jaialdiko bederatzi film eskainiko dituzte Durangaldean, datozen egunetan. Berrizen, Abadiñon eta Durangon Zinegoak jaialdiko zenbait film emango dituzte martxoaren 15etik 24ra bitartean.

Berrizko Kultur Etxean eta Abadiñoko Errotan, martxoaren 15ean eta 16an, hurrenez hurren, *Girls & Boys, Victoria Rosana Maite, Oh Be Joyful* eta *Take Your Partners* film laburrak eskainiko dituztela jakitera eman dute.

Durangon, berriz, martxoaren 24an, 20:00etan, emango dituzte Bilboko Zinegoak jaialdiko dokumentalak. San Agustin kultur gunean, *¡No es nada!, Gabber Lover, Ana Se Intoarce, Not guilty, Grávido* eta *Oh Be Joyful* filmak emango dituzte.

### Bost film euskaraz

Durangaldean eskainiko dituzten bederatzi filmetatik bost euskaraz emango dituztela jakitera eman dute antolatzaileek. Bestalde, bederatzietatik bat, *¡No es nada!*, EAEn ekoitzia dela adierazi dute.

# “Erakusketa gure artea herriari ezagutarazteko aukera ona dela uste dugu”

## Herriko emakume artisten erakusketa zabalduko dute martxoaren 7an



Erakusketan parte hartuko duten hamar emakumeetatik zortzi, talde argazkian.

**> ELORRIO** Markel Onaindia

Lehenengoz, Elorrioko emakume artisten erakusketa kolektiboa antolatu dute Iturri kultur etxean, martxoaren 8ko ekitaldien baitan. Artistei euren lanak aurkezteko aukera eman zieten, eta hasierako galbahea pasata, hamarrek parte hartuko dute erakusketan. Arantxa Arruabarrena, Cinta Altes, Debora Crespo, Maite Salsamendi, Marta Ortiz de Zarate, Nieves Medela, Rita Ugarriza, Maite Zubia, Kristina Balenziaga eta Mari Carmen Kortabarria dira euren sormena herritarrei erakutsiko dietenak. Martxoaren 7an egingo dute inaugurazioa, eta apirilaren 21era arte egongo da ikusgai erakusketa.

### 700 fotogramatan

Debora Crespo gazteak, adibidez, lau irudi eta animazio bat ipiniko ditu Iturrin. Arte Ederrak ikasi eta marrazketan espezializatzen dabil. Eskuz egin izan ditu lanak, baina, “teknologizatzen hasi” eta orain ordenagailu bidez egiten ditu. “Normalean kolore bigaz bakarrik egiten ditut, trazua nabarmentzeko, irudia zelan sortzen doan azaldu gura dudalako”, adierazi du Crespok. Animazioaren kasuan, bideoan neska bat biolina jotzen eta dantzan ikusi ahalko da. “12 segundo dira. Gutxi da, baina sekulako lana da, 700 bat fotograma direlako. Gorputza zelan mugitzen den ikusten da, trazuen bidez”, gaineratu du.

Ez da Elorrion bere lana erakusten duen lehen aldia. Izan ere, Arte Ederretako ikasle batzuekin batera erakusketa bat osatu zuen; hainbat lekutan egon ziren, eta bere herria zen horietako bat, duela bi-hiru urte. “Eragin ona” eduki zuela esan du, eta oraingo honetarako ere hori espero du.

> **“Isilduta” egon izan direla azaldu du marrazkilari gazteak**

> **“Harro gaude hartu gaituztelako”, esan du Medelak**

### Emazteenak ziren

Emakumeen sorkuntza lanak historian “isilduta” egon izan direla ohartarazi du marrazkilari gazteak. “Sekulako obra famatuak daude kalean edo museoetan, eta uste dugu gizonenak direla. Baina izatez, asko euren andreenak dira. Hori historian ez da ondo azaldu”. Horregatik, balioa eman dio Elorrioko erakusketa eta halako ekimenak antolatzeari, presentzia areagotzeko.

Egungo egoeraz galdetuta, emakumeak protagonismoa hartzen dabiltzala uste du, eta “esperantzagarria” dela. “Apurka-apurka, emakumeok gizartean garrantzia hartzen gabiltza, eta artearen munduan ere bai. Komisarioak-eta beti izan dira mutilak, adibidez, baina badoa aldatzen”, dio artistak.

### 1987tik lanean

Nieves Medelak hainbat koadro aurkeztu zituen erakusketarako, eta hiru aukeratu dizkiote. Batek harri baten detaile bat islatzen du; beste batek horma baten higadura du oinarri; eta hirugarrena putzu baten ingurukoa da. 30 urte daramatza margotzen. “1987an hasi nintzen, udalak antolatutako ikastaro batean. Giro ona sortu zen, eta jarraitu gura genuen. Horrela, elkarte bat sortu genuen. Gaur egun neu naiz elkarteko presidentea”, azaldu du Medelak. Iturrin eta herriko hainbat tabernatan egin izan dituzte erakusketak, baita Durangon eta Bergaran ere. Elkartetik sei emakume aurkeztu dira.

Erakusketa aukera lez ikusten du. “Aukera ona dela uste dugu, herriari gure artea ezagutarazteko. Harro gaude hartu gaituztelako”, esan du Medelak.

# Elorrion bizi diren emakume migratzaileekin topaketa egingo dute

## Aniztasuna hartu dute egitaraurako oinarri lez

**> ELORRIO** M.O.

Martxoaren 8rako egitarau oparoa prestatu dute Elorrion, udalaren eta hainbat elkarteren artean. Aniztasuna hartu dute egitaraua osatzeko oinarri lez, eta Idoia Buruaga alkateak zeregin horretan parte hartu dutenak zoriondu ditu.

Joan zen astean egin zuten egitarauaren aurkezpena, emakume askoren babesean. “Elorrion zorte handia dugu hainbeste emakume desberdin edukita, aberastasuna da”, adierazi du Aratxu Uriarte berdintasun zinegotziak. Bere esanetan, martxoaren 8aren harira “guztien berezitasun eta eskubideak aldarrikatzea” izango dute helburu. Emakume izateaz aparte, jatorriagatik, erlijioagatik edota sexu aukeragatik ere diskriminazioa sufritzen dutela gogoratu du Uriartek, eta, horregatik, “egoera baztertzaileak deskubritzea” gura dutela. Esaterako, emakume migratzaileekin topaketa bi deitu dituzte; otsailaren 25ean izan zen lehena, eta martxoaren 6an izango da bigarrena. Henna tailerra eta tearen zeremonia ere iragarri dituzte. Elorrion %5 dira estatuz kanpokoak, eta, batez ere, Maroko, Bolivia eta Nikaraguakoak dira gehienak.

Bost hizkuntzatan kaleratu dituzte gonbidapenak, eta Kainabera eta Caritasen laguntza eduki dute banaketarako. Ikastetxeetan ere landu dute gaia.




**MARTXOAK 3**
· **18:30 TAILERRA** “Boteretze feminista” Dinamizatzailea: Bilgune Feminista. Iturri Kultur Etxean.

**MARTXOAK 6**
· **17:00 EMAKUME MIGRATZAILEEKIN TOPAKETA** Dinamizatzailea: Cony Carranza (El Salvador). Ludoteka-zerbitzua egongo da. Iturri Kultur Etxean.

**MARTXOAK 7**
**ELORRIOKO EMAKUMEEN ANIZTASUNA ERAKUSKETA**
“EZberdinak”, Patxi Granadoren Elorrioko 36 emakumeren erretratuak
Elorrioko 10 emakume artisten erakusketa kolektiboa. Apirilaren 21era arte. Iturri Kultur Etxean.

**MARTXOAK 8**
· **10:00 ELORRIOKO IKASLEEN ELKARTRUKEA**: “Berdintasunean eta Aniztasunean jolasten” Dinamizatzailea: Urtxintxa Eskola.
· **19:00 ENKARTELADA**
Martxoak 8: Gora Emakumeen Borroka! Herriko Plazan. Emakumeen taldeek deituta.

**MARTXOAK 9**
· **16:00 ELORRI LORE** Emakumeen Elkartea. Film didaktikoa: “Sufragistas” Iturri Kultur Etxean.

**MARTXOAK 10**
· **18:30 HITZALDIA** “Feminismo beltza”.
Hizlaria: Jeanne-Rolande Dacougna Minkette. Aktibista feminista. Garaipen Elkartea. Iturri Kultu Etxean.

**MARTXOAK 11**
· **8:30 EMAKUMEENTZAKO URKIOLARAKO MENDI MARTXA**.
Irteera Herriko Plazan.
5 orduko ibilbidea, Urkiolan bazkaldu eta buelta lineako autobusean (nork berea ordaintzen du). Izena emateko: berdintasuna@elorrio.eus / Tel.: 94 657 08 09.

**MARTXOAK 15**
· **18:00 HENNAZ TATUAJEA ETA TEAREN ZEREMONIA**
Iturri kultur etxeko “Ez-berdinak. Diversas” erakusketaren barruan, Khadia Bouchkarrek hennaz margotuko ditu publikoaren eskuak, Badiaa Nacirrek tearen zeremonia egiten duen bitartean.
· **19:30 DOKUMENTALA** “Rafea y el sol”. Iturri Kultu Etxean.

**MARTXOAK 17**
· **17:00 IPUIN KONTALARIA:** “Emakumeak Munduan”. Alberto Bargos. 4 urtetik gora. Liburutegian.
· **18:30 HITZALDIA**
“Feminismoen arteko aliantzak, zapalkuntza anitzak birpentsatzen”
Hizlaria: Itziar Gandarias.
Iturri Kultur Etxean.

**MARTXOAK 18**
· **17:30 MURAL-MARGOKETA** Plazan. Ondoren poteoa.
· **21:00 AFARIA eta ondoren KONTZERTUAK** Gaztetxean
- Occhi di farfalla
- Drumkopters

Antolatzaileak: Elorrixoko Bilgune Feminista eta Gaztetxea.

# Emakume guztiak gonbidatu dituzte Andragunearen inauguraziora

## Andragunea Lariztorrera lekualdatzea erabaki zuten, eta maiatzean hasi ziren eraldaketagaz



Atzo Andragunean bertan eskaini zuten prentsaurrekoa.

**> DURANGO** Markel Onaindia

Andraguneak etapa berri bat hasiko du bihar, Lariztorren egingo den inaugurazioagaz. 2009an zabaldu zen, lehenengoz, emakumeen etxea Pinondon, baina mugimendu feministak etxe propioaren beharra ikusten zuen, erreferentzia indartzeko. Horrela, Andragunea Lariztorrera lekualdatzea erabaki zuten Udal Berdintasun Kontseiluan, eta maiatzean hasi ziren eraldaketagaz.

Turimso bulegoa Kurutzesantu museora eraman zuten, eta Durango Eraikitzen zerbitzuko bulegoa mugitu berri dute. Beraz, Lariztorre Andragunea da soilik jadanik. Biharko inaugurazioa 12:00etan hasiko da, eta udal arduradunek Durangoko emakume guztiei egin diete bertaratzeko gonbita.

**Ríos: "Mugimendu feministaren aspaldiko eskaera bete da"**

**Lasterketa familiarra domekan izango da, 11:30ean**

### Bediagaren kantak

Jai-giroko ekitaldia izango da inaugurazioa. "Mugimendu feministaren aspaldiko eskaera bete dela ospatu nahi dugu", azaldu zuen Pilar Ríos alkateordeak atzoko prentsaurrekoan. Idoia Bediaga abeslari abadiñarrak kanta batzuk eskainiko ditu, eta Yolanda Arrieta idazleak gidatuko du ekitaldia. Ekitaldira bertaratzen direnek Andragunea ikusi eta ezagutzeko aukera edukiko dute, gainera.

### Lilakrosa, domekan

Bestalde, atzo aurkeztutako egitarauaren osagai nagusietako bat Lilakrosa izango da. Berdintasunaren aldeko lasterketa familiarra domekan izango da; 11:30ean kamiseten banaketa egingo dute Ezkurdin, eta 12:00etan abiatuko da korrikalari taldea. Amaitzerakoan, koreografia bat egitea proposatuko dute. Batzen den dirua Kurdistanen bonbardatutako Kobane hirira bideratuko dute.

Dagoeneko Lilakrosaren XII. edizioa izango da, eta seguru jendetza batzen duela, aurreko urteetan bezala.

### Emakumeen greba

Bestalde, Aitziber Irigoras alkateak iragarri zuen munduan emakumeen greba bat antolatzen ari dela martxoaren 8rako. Hilaren 8a jai eguna izatea eta erasoak amaitzea eskatuko du deialdi horrek, eta udalak elkartasuna erakutsiko dio. "Erasoak ez dira soilik biolentziazkoak; sexu jazarpena eta soldaten desberdintasuna ere badira erasoak", esan zuen alkateak.





Iaz antolatu zuten lehenengoz Milia Morea Iurretan. Hala ere, parte-hartzea ez zen izan esperotakoa. Aurten herritar gehiago animatzea gura lukete.

# Berdintasunaren aldeko Milia Morea egingo dute korrikan iurretarrek

Selfie lehiaketa antolatu dute aurten ere, Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira

**> IURRETA** Aitziber Basauri

Aurten ere, berdintasunaren alde de Milia Morea egiteko gonbita egin dute Iurretan. Martxoaren 11n jarri dute hitzordua, 12:00etan, Goiuria kulturgunean, eta parte hartzera deitu dituzte herritarrak. Nagusi eta gazteak, gizon eta emakumeak, haurrak. Guztiak gonbidatu dituzte berdintasunaren aldeko herri lasterketara.

Emakumearen presentzia indartu gura du Milia Moreak, Iraia Garcia korrikalariak azaldu duenez. Hala ere, herritar guztiei zabaldutako ekimena dela gaineratu du Gu Be Bai Runners taldeko kideak. "Izan ere, emakumeok, eta oro har pertsona guztiok, besteen laguntza behar izaten dugu kirolean jarduteko, ikasteko, bizitzeko... babes hori behar izaten dugu, eta horregatik animatu gura ditugu herritar guztiak lasterketetan parte hartzera".

**Herritar guztiei zabaldута dago berdintasunaren aldeko lasterketa**

Korrika egiteko gogoa. Horixe baino ez da behar berdintasunaren aldeko herri lasterketan parte hartzeko. Herrigunean zehar 800 metroko ibilbidea egingo dute. Birritan. Horrela osatuko dute korrikalariek Milia Morea. "Distantzia erosoa da korrika egiten disfrutatzeko; eta bakoitzaren gaitasunak proban jartzeko ere bai, hala gura izanez gero", dio Garciak. Kamiseta tiranteduna ere jarriko dute salgai, bost euroan.

Iaz antolatu zuten lehenengoz Milia Morea. Hala ere, egun berean izan ziren Durangon eta Donostian antolatutako berdintasunaren aldeko lasterketak, eta ez zuten esperotako erantzuna izan. "Eguraldiak ere ez zuen larregi lagundu, lasterketak iraun zuen bitartean ateri eutsi zion arren", gogoratu du Garciak. Oraingoan partaide gehiago batzea espero dute. "Ea irailean egiten dugun lasterketako partaide kopurura hurbiltzen garen. Ekimen polita izango da, eta parte hartzera animatu gura dugu", dio Garciak.

### Selfie lehiaketa

Beste alde batetik, aurten ere antolatu dute Selfie lehiaketa ere Iurretan. Bakarkako edo taldeko argazkiak onartuko dira, esan dutenez, beti ere selfiak badira, eta berezko garrantzia hartuko dute berdintasunari lotutako gaia izateak eta herriaren izaera islatzeak. Sormena eta originaltasuna ere hartuko dira kontuan.

Bi kategoria ditu lehiaketak: 12-17 urte bitarteko gazteak eta 18 urtetik gorakoak. Iurretan erroldatuta egotea beharrezkoa da, edo bertako ikastetxe edo elkarte batean jardutea. Irabazlea martxoaren 8an jakinaraziko dute, Ibarretxe kultur etxean. Aurretik, Adierazpen Instituzionala irakurriko dute; 19:00etan izango da hori.

# Afaltzeko elkartuko dira herriko emakumeak

Barreterapia eta sexologia ikastaroak antolatu ditu Anderebide emakume elkarteak

**> IURRETA** A.B.

Mahai baten bueltan, afaltzeko elkartuko dira herriko hainbat emakume martxoaren 11n. Anderebide elkarteak antolatuta egingo dute afaria, Emakumeen Nazioarteko Egunaren bueltan. Azken urteetan mantendu den hitzordua da hori, eta Txaro Fradejas Anderebideko kideak azaldu duenez, hainbat emakume elkartzen dira bertan. Iaz, 70 emakume inguru batu ziren, esan duenez. Agarreko jatetxean afalduko dute.

Hala ere, bestelako ekitaldiak ere antolatu dituzte Martxoaren 8a datorrela kontuan hartuta. Hartara, barreterapia eta sexologia tailerrak hasiko dituzte, martxoan. Hurrenez hurren, hilaren 3an eta 10ean abiatuko dituzte. "Barreterapia ikastaroa antolatu izan dugu aurretik ere, eta oso harrera ona izan du. Sexologia tailerra, berriz, berria da. Askok lotsa sentitzen duen arren, interesa sortu dezakeen gaia delakoan antolatu dugu. Gauza berri bat eskaini guran", dio Fradejasek. Gogoratu du baita *Frida* antzezlana ikusteko aukera ere egongo dela, martxoaren 17an.

**'Frida' antzezlana ikusteko aukera ere egongo da, martxoaren 17an**

# Tarta dastaketa antolatu dute Martxoaren 8rako

**> IURRETA** A.B.

Tarta dastaketa antolatu du udalak Emakumeen Nazioarteko Egunaren testuinguruan. Martxoaren 8an bertan izango da, eta parte-hartzaile bakoitzak 15 euroko txartela jasoko du. Aurten, parte-hartzaileek eurek erabakiko dute, dastaketara doazen gainerako herritarrekin batera, zein izan den pastelik gozoena. Halaxe azaldu du Ainhoa Albizuri Berdintasun Teknikariak. Irabazleak, berriz, 50 euroko txartela lortuko du.

Iaz tarta lehiaketa antolatu zuten Iurretan. Orduan, epaimahai batek erabaki zuen tartarik gozoena zein izan zen. Oraingo honetan bestelako izaera eman gura izan diote ekimenari.

## M8 Iurreta

*IKASTAROAK - ateak zabalik -*

**BARRETERAPIA TAILERRA**
Martxoak 3 // 16:30
*Dinamizatzailea:*
Araceli Alvarez
Goiuria Kultur Gunea

**EMAKUMEEN LITERATUR TAILERRA**
Martxoak 6 // 18:15
*Dinamizatzailea:*
Ainhoa Aldazabal (Skolastika)
Ibarretxe Kultur Etxea

**XL KLUBA**
Martxoak 8 // 10:00
55 urtetik gorakoentzat
*Dinamizatzailea:*
Blanca Mata (Irakurketa erraza)
Ibarretxe Kultur Etxea

**SEXOLOGIA TAILERRA**
Martxoak 10 // 16:30
*Dinamizatzailea:*
Araceli Alvarez
Goiuria Kultur Gunea

Izen-emateak eta txartelak:
**www.iurreta.eus**

**Ibarretxe Kultur Etxea**
gizarte-ongizatea@iurreta.eus
946 215 372

**Goiuria Kultur Gunea**
Anderebide emakume elkartea
anderebide@gmail.com
616 490 506

Martxoaren 6ra arte
***Selfie Lehiaketa***
Gaia: Berdintasuna
1. Kategoria: 12-17 urte
2. Kategoria: +18 urte
Bidaliguzu zure selfia.
gizarte-ongizate@iurreta.eus

Martxoak 8 *Ekintza guztiak Ibarretxe Kultur Etxean.*
***Emakumeen nazioarteko eguna***
19:00 Adierazpen instituzionalaren irakurketa.
***Selfie Lehiaketa***
19:15 Sari-banaketa.
***Tarta dastaketa***
19:30 Dastaketa.
Izen ematea: martxoak 1etik 7ra.

Martxoak 9
***Emakumeak eta literatura Berbaldia***
18:30 "Encuentro con Mariasun Landa". Dinamizatzailea: Josune Muñoz (Skolastika)
Ibarretxe Kultur Etxea.

Martxoak 11
***Milla Morea (Herri lasterketa)***
12:00 Goiuria Kultur Gunea
Berdintasunaren alde
Herrigunetik zehar. Dinamizatzailea: Gu Be Bai Runners – iurreta
***Afaria***
20:45 Autobusa - Agarreko jatetxea
Txartelak, martxoaren 8ra arte salgai

Martxoak 17
***Antzerkia***
19:00 Frida
Ibarretxe Kultur Etxea

Iurreta Eleizateko Udala · Bizkaia

# Emakume izateagatik, ardura karguak hartzea zailagoa denean

Sektore edo mundu maskulinoetan ardura postuak hartu dituzte Uribarrik, Izagirrek eta Etxebarriak

> M8 Markel Onaindia

Matxismoaren sakoneko eraginetako bat da. Enpresa edo taldeen zuzendaritzetan gizonak ikustera ohituta gaude, berezkoa balitz bezala. Gizonak irudikatzen ditugu langileak koordinatzen eta aginduak ematen. Zergatik da horrela, unibertsitatean emakume asko badaude? Egiturazkoa edo oinarrizkoa da arazoa, emakume izateagatik, ardura karguak hartzea zailagoa bihurtzen da. Erreportaje honetan, sektore maskulinoetan ardura postuetan egotea lortu duten hiru emakumek euren esperientzia kontatzen dute, eta emakume zuzendarien presentzia urriaz hausnartzen dute. Bakoitza esparru eta egoera desberdin batetik dator, analisi desberdinagaz, baina bat egiten dute iritzi berean: hau aldatu beharra dago.

### Lehen sektorea sustatzen

Alazne Uribarri Zaldibarko baserri batean jaio zen, eta bere bizibi-

## “Iritzi autoritatea irabazi egin behar da, eta gehiago kosta zait emakume izatearren”

Lehen sektoreko elikagaien sustapena zuzentzen du Alazne Uribarrik Jaurlaritzaren HAZI fundazioan




**Gutxietsia sentitu izan zara inoiz emakume izatearren?**
Hasieran, bai. Sektoreagaz zuzenean egiten genuen lan, eta konbentzitzeko lan garrantzitsu bat egin behar izan genuen. Neska gazte bat euren etxera joatea gauzak zelan egiten diren azaltzera… Nire sinesgarritasuna sendotzea urte asko kosta zait. Iritziaren autoritatea irabazi egin behar da, eta uste dut niri gehiago kosta zaidala emakume izatearren.

**Zure kasua adibide bat da emakumeek ardura postuetan lan egin dezaketela ikusteko.**
Emakumeok arazoak gainditzeko espiritu handia dugu, borondate sendoa, sakrifizio gaitasuna eta konstantzia errepikaezina. Formazio itzela duten emakumeak gero eta gehiago dira, baina gero arazoak dituzte kontziliatzeko. Uste dut meritu berezi bat dugula emakumeok.

> **“Administrazioan kontziliazioaren aldeko neurriak ezarri dira”**

**Familiaren zaintzak ere eragina dauka emakumeen karguetan.**
Asko miresten ditut nire lankide diren emakumeak, kontziliatzeko orduan gizonek baino arazo gehiago dutelako. Interesgarria da bizitza pertsonalaren zurrunbiloan zelan bizirauten duten ikustea. Karga familiarrak ez dira konpartituak, eurengan pisu handiagoa dute. “Niri gizonak laguntzen dit”, esan izan du baten batek. Zer diozu?

**Zer egoera daude administrazioko eta enpresetako zuzendaritzetan?**
Administrazio publikoa eta enpresa pribatua bereizi behar direla uste dut, erritmo bi ditutzelako. Administrazioan azken urtetan hainbat neurri ezarri dira kontziliazioaren alde, eta baita parekidetasuna lortzen saiatzeko ere. Gero eta emakume gehiago daude; albaitari edo ingeniari postuetan adibidez, eta maila ertaineko karguetan ere bai. Ardura handiko postuetan gizonezko asko daude, baina emakume eta gizonen arteko oreka bilatzen da zuzendaritzetan. Gainera, Estatuko beste erkidegoekin alderatuta aurreratuta gaudela esango nuke; azoka eta topaketetan igarri egiten da. Enpresa pribatuetan, ordea, zuzendaritza kontseiluetan gizonezkoak ikusten dituzu soilik. 2013an enpresen zuzendaritzako master bat egin nuen, eta informatzera etorri ziren guztiak gizonak izan ziren. Ikasleak 40 ginen, eta emakumeak 8 bat.

**Zelako esperientzia profesionala izan da zuretzat HAZIn lan egitea?**
1992an hasi nintzen hemen lanean, aurten 25 urte beteko dira; nire bizitzako proiektua da. Zaldibarko baserri batean jaio nintzen. Zazpi neba-arrebatako nagusiena izanda, akaso markatu ninduen, eta zerbait maskulinoa egitea erabaki nuen, arauak haustea. Ikasketak amaituta, nire ibilbide profesionalak hona ekarri ninduen, proiektua zuzentzera. Euskal Herriko produktu tradizionalen kalitatea bereiztea zen asmoa, zigilu edo marka bat sortzea, eta balioa ematea abeltzain eta arrantzaleek erabili ahal izateko. Zaila izan zen, baserritarrek ia guztia autokontsumorako ekoizten zuten-eta. Baina merkatu bateratu komunean sartzean, beharrizana ikusi zuten. Esperientzia paregabea izan da, eta oraindik ere bada.

**Zein da orain zure lana, eta zer erronkatan murgilduta zabiltza?**
‘Kalitatezko markak eta merkatuak’ ataleko zuzendaria naiz. Eusko Labeleko produktuen eta horien komertzializazioaren ardura daukat. 2013an jaio zen HAZI, Kalitatea fundazioa beste bigaz bateratzean. Kontsumo ohiturak aldatu dira, eta zigilua ere bai. Une honetan Eusko Labelagaz egiaztatutako 16 produktu ditugu, eta horiekin elaboratutakoak gero eta gehiago dira; oilasko hanburgesak eta Ibarrako piperrekin egindako gildak, esaterako.



## “Bizibide ha… neskak ezag… mutilen kas…

Lanik ez duen emakume b… nahita, Goya sari bat duen …

**Zer presentzia dute emakumeek zinean?**
Zinea gizonena da, erabat. Gure pelikulako kasua oso arraroa izan zen; zuzendaria emakumea eta gaztea, eta talde erdia ere, emakumeak. Emakumeak ez laguntzaile lez bakarrik, soinu teknikari arduraduna edo produkziokoa ere bai. Emakumeek ere goian egon behar dute, iritzia emateen. Ez duzu aurkituko gizon batek zuzendutako film bat, talde erdia emakumez osatutakoa. Kasu batzuetan, mutila banintz beste era batera erantzungo lidaketela sentitu izan dut; badirudi mutila izateagatik zuzendari hobeak izan behar dutela. Unibertsitatean 90 neska eta 10 mutil ginen, eta lan munduan, alderantziz. Gizonek aukeratzen dutelako da hori. Bizibide hau utzi duten neskak ezagutzen ditut, mutilen kasuan ez, ordea. Zinera zoaz eta hamar filmetik bat ere ez da emakumeek zuzendurikoa; hurrengo astean, hamarretik bat. Lehia-

dea lehen sektorea sustatzen egin du. Eusko Label markaren sorreran egon zen Kalitatea fundazioagaz, gaur egun HAZI fundazioan bildu dena.

**Zine zuzendari saritua**

Lara Izagirre zornotzarrak zinea egiteko ametsa zuen. Ekoiztetxea sortu eta atzetik etorri ziren dokumentalak, film laburrak, Azurmendi jatetxeko komunikazio ardura... Bere lehen film luzeagatik Goya saria eman zioten, Irene Escolarren aktore lanagatik. Pelikulen sorkuntzan genero kuotak ezarri beharko liratekeela uste du.

**Emakume bat palkoan**

Maria Eugenia Etxebarria Amorebieta futbol taldeko presidentea da. Emakume presidente bakarra da Bigarren B mailan. Futbolak ordu asko kentzen dituela dio, bai astegunetan bai asteburuetan, eta familia ardurekin bateratzea zaila dela argi du.



# u utzi duten utzen ditut, uan ez”

ati proiektu bat eskaini dio, zuzendari zornotzarrak

keta edo jaialdietan, berdin. Gizonek bederatzi aukera dituzte, eta guk bakarra.

**Zer egin daiteke hobetzeko?**

Nire ustez, kuotak ezartzea. Bestela, inoiz ez da egongo aukera berdintasun bat. Kuota bat ezarri eta goazen alderatzera neskek eta mutilek egin duguna. Berlinen, adibidez, sari garrantzitsuenak emakumeentzat izan dira, protzentaje oso txikiagaz. Gizonek egin ditzakete pelikula txarrak, emakumeek ez. Beraz, hobeak gara objektiboki.

**Urte gutxiren buruan zine zuzendari saritua bihurtu zara.**

Ikus-entzunezko komunikazioa ikastean, zinea egin gura nuela sentitzen hasi nintzen. New Yorken urtebeteko ikastaroa egin nuen, eta hor topatu nuen nire bidea. Zornotzan ekoiztetxea sortu, eta apurka film laburrak sortzen hasi nintzen. Gero, zine ikastaroak eskaintzen, komunikazio lanetan... Film luzea egiteko gogoa sentitu eta hor jaio zen *Un otoño sin Berlin*. Ekoiztetxea oso txikia zen hasieran, eta naturalki joan da hazten.

**Zertan zabiltza orain?**

Zine gidoi bat idazten nabil, euskaraz izango dena, eta komedia. Bestalde, bere arloan lanik ez duen emakume bati aukera eman gura nion proiektu bategaz, eta Naiara Carmona hasi da gugaz. Virginia Wolfek zioen lez, sortzeko gela propioa eduki dezan.

**Zelan gogoratzen duzu filmearen sorkuntza?**

Grabaketa aurreko fasea polita izan zen. Ilusio handiz geunden, askorentzat lehen pelikula baitzen. Gero, grabaketa polita izan zen, baina gogorra; jende asko dago zuri begira, eta ez dakizu erabakitzen duzuna ona den ala ez. Pelikula osoan inori zaratarik ez egitea eta besteei entzutea nuen helburu. Eta horrela egin nuen. Zinean diktadore asko dago.

**Irene Escolarri emandako Goya saria zeurea ere bada.**

Aktoreak ondo ez zuzentzea zen nire beldur handiena. Beraz, saria oso garrantzitsua izan zen niretzat. Irenek eta biok batera egin genuen zerbait da. Oso ona da, eta hasieratik ulertu genuen elkar. Agian elkarren beharra genuen.



# “Gaitasun berdinak ditugu; gura dugun lekuan egon gaitezke, uzten badigute”

Maria Eugenia Etxebarria emakume presidente bakarra da 2. B mailan

**Beste emakume pesidenterik ezagutzen duzu?**

Bigarren B mailan ez dut uste beste emakumerik dagoenik. Lehen mailan, Eibarrekoa, Valentziakoa eta Leganesekoa daude. Bizkaian, Hirugarren Mailan dagoen Erandiok ere emakume presidentea dauka. Hala ere, klubetan lanean dauden emakume asko ezagutzen ditut.

**Futbola mundu oso maskulinoa da. Horrek edukiko du ere zerikusia ordezkaritzetan...**

Emakume asko daude lanean administrazioan, adibidez. Protagonismo gutxiagoko lanak egitera ohituta gaude, agian. Gainera, zure ardura familiarrekin bateratu behar duzu, eta futbolak asteburu asko kentzen dizkizu.

**Gizarte egiturak ere ez du laguntzen.**

Gizon baten gaitasun berdinak ditugu, eta, horregatik, gura dugun lekuan egon gaitezke, uzten badigute. Hori da gure borroka. Unibertsitatean emakume gehiago badaude, zergatik gero ez dira heltzen arduretara? Goian daudenak gizonak direlako, eta gizonak aukeratzen dituztelako. 45 urte daramatzat gauza bera aldarrikatzen; dagoeneko aspertuta gaude aldarrikatzeaz, ea zuen belaunaldiak aldatzea lortzen duen.

**Arazorik edo begirada txarrik eduki duzu?**

Horrelako egoeren *detektagailu* bat daukat, eta, zorionez, tratua ona izan da. Noizbait detaileren bat, bai. Logroñon, esaterako, palkora joan eta lau emakume eta gizon bat geunden. Bertako presidentea agertzean, gizona agurtu zuen, bisitarien presidentea zelakoan.

> **“Kontziliatu egin behar duzu, eta futbolak asteburu asko kentzen ditu”**

> **“Haur mailako taldea sendotu dugula esan daiteke”**

**Zelan hartu zenuen Amorebieta futbol taldeko presidentetza?**

2014tik nago presidente karguan. Futbol-zelaiaren ondoan jaio nintzen, eta horregaz guztia esanda dago. Domekak futbola ikusten ematen genituen; nire nebak jokatzen zuen... Duela 11 bat urtetik naiz bazkide. Aurreko presidentea ezagutzen nuen, eta erretiratzeko asmoaz berba egin zuen. Nik lan aldaketa bat egin behar nuen sasoi hartan, eta familia ardurarik ere ez neukan. Apustu eta proiektu berri bat zen niretzat.

**Zelako ardura eskatzen dizu?**

Denbora asko eta esfortzu handia eskatzen dituen zeregina da, eta, egia esan, azkenean erre egiten du apur bat. Lehen taldea Bigarren B mailan dago, eta liga nahiko zorrotza da. Liga profesionaleko baldintzak bete behar dira, eta baliabide bila ibiltzen gara. Klubeko azpiegitura ez daukagu oso handia, bi-hiru lagun gara lanean, eta besteren bat ere badago aldika laguntzen duena. Jendea eta mugimendua behar dira.

**Imajinatzen dut denbora asko emango duzula gauzak zelan zuzendu pentsatzen.**

Jokalari, entrenatzaile eta guraso asko dira, eta sortzen diren arazoak gestionatu beharra dago. Baina, hala ere, hori alde erraza da. Diruaren gaia da gaitza. Krisiagaz, publizitate eta ekarpenen atalean 4 urtean %40 bat bajatu dira sarrerak. Bestalde, orain zaila da enpresetara babesletzak eskatzen joatea, guztiek baitituzte marketing sailak. Horma bat aurkitzen dugu parean.

**Zenbat futbolari dituzue?**

Harrobiko futbolean 250 bat jokalari ditugu, mutilen hamahiru taldetan eta nesken bi taldetan banatuta. Gero, Erregionaleko eta Bigarren B mailako taldeak daude. Nesken taldean lan handia dugu atzetik, eta euren amak ere badabiltza laguntzen. Haur mailako taldea sendotuta daukagula esan daiteke, baina jarraipena eman gura diogu. Kadete mailakoa sortu dugu, baina kidez justu-justu gaude, jokalari beharrean.

# Menstruazioarekiko erlazioa hobetzeko, esperientziak eta jakintzak partekatuz

Hilekoaren zikloari buruzko tailerra egingo dute

**> ABADIÑO** Itsaso Esteban

Esti Urresola eta Ane Uriarte laudiotarrek gidatuko dute, teoria eta praktika uztartuz, emakumeak hilekoaren inguruko esperientzia eta jakintzak partekatzera bultzatuko dituen tailerra. Martxoaren 11n, 10:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 17:30era egingo dituzte saioak, Traña-Matienako Errota kultur etxean.

Tailerrean parte hartzen duten emakumeak "beraien gorputzarekiko eta menstruazioarekiko erlazioa aldatzera" gonbidatuko dituzte. Hilekoaren zikloaren funtzionamendu fisiologikoa azalduko du Urresolak, eta baita hormonek markatzen dituzten emakumearen bizitzako lau faseak ere, "zure gorputza ezagutzen eta ulertzen laguntzeko". Bere esperientzia pertsonaletik dio Urresolak, "hilekoaren egunak ziklo oso baten parte direla —bere eragina ez dela odol-isuriak dauzkagun egunetara mugatzen— ulertzeak, geure buruaz sinetsarazi digutena — hilekoaren eraginez ezegonkorrak garela, adibidez— zalantzan jartzera garamatza emakumeok".

**"Gorputza ezagutu eta ulertzeko" gakoak eskainiko dituzte**

**Martxoaren 11ko saioetan teoria eta praktika uztartuko dituzte**

Ane Uriarte talde dinamiketan aditua da, eta bere eskutik dantza baliatuko dute tailerrean, "mugimendu kontzientearen bitartez" jarduteko.



Tailerreko parte-hartzaileak menstruazioari loturiko beraien bizipenak partekatzera gonbidatzen dituzte.

Sozialki gainditutzat ematen den arren, menstruazioarena oraindik ere tabua dela diote tailerraren emaileek. Urresolak nabarmendu duenez, "emakumeok gure artean ere ez dugu asko hitz egiten menstruazioari loturiko gure bizipenez". Komunikazio hori lortzea da tailerraren helburua, "emakumeei euren gorputzei buruz berba egiteko tresnak ematea".

Eskaini izan dituzten tailerretan parte-hartzaileen erantzuna "oso polita eta hunkigarria" izan dela dio Urresolak. "Askok esan digute oso baliagarria dela jasotakoa, ez bakarrik norberarentzat, baita gazteagoei transmititzeko ere".

Hain zuzen ere, hilekoa etortzen zaien lehenengo aldian emakume gazteek dituzten bizipenak gaitzat hartuta, Esti Urresolak zuzenduriko *Adri* film laburra ere emango dute, Abadiñon. Martxoaren 8an, 18:00etan, Errota kultur etxean eskainiko dute pelikula.

Eskualdeko igeriketa txapelketarako bi asteren faltan, probarako entrenamenduetan dabilela, hilekoa etorri zaio *Adri* filmeko protagonistari, lehenengoz. Bakardadean eta ezkutuan biziko du neska gazteak egoera berria. Urresolak azaldu duenez, "bizi duguna bezalako gizarte patriarkaletan emakumeen intereseko informazioaren eta jakituriaren transmisio katea apurtu" egiten dela islatu gura du filmagaz.



Urresolak zuzenduriko 'Adri' filma ere ikusgai izango da, Abadiñon.




MARTXOAK 8 · ABADIÑO
EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

MARTXOAK 3
NESKATOAK Emakumeak Ipar Euskal Herrian lanean frankismo garaian (Jon Abril Olaetxea) ***DOKUMENTALA.***
19:00 Txanporta Kultur Etxean

MARTXOAK 8
**'EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA'**
ADRI (Estibaliz Urresola). Lehenengo hilerokoari buruzko ***LABURMETRAIA***
18:00 Errota Kultur Etxean

**BIHOTZERRE ANTZERKI TALDEAREN ESKUTIK**
• XII. Kartel lehiaketaren sari banaketa
• Adierazpen instituzionalaren irakurketa
• Kale animazioa BAGARA BAGAUDE!
19.00 Errota Kultur Etxean

MARTXOAREN 6tik 31ra
KARTEL LEHIAKETARA AURKEZTUTAKO KARTELEN ***ERAKUSKETA***
Errota Kultur Etxean

MARTXOAK 9
**ZAPATOS ROJOS** ***Elina Chauvet***
***MARGOKETA TAILERRA***
17:00/19:00 Errota Kultur Etxean
(Emakumezko zapatak ekarri!. Errota / Udal Mediateka)

MARTXOAK 10
**OSO PRINTZESA ILETSUA**
***Umeentzako antzerkia***
18.30 Txanporta Kultur Etxean

MARTXOAK 11
**ILARGIAK.** HILEROKOAREN ZIKLOA ETA MUGIMENDU KONTZIENTEA. ***TAILERRA***
10/14 - 15.30/17.30
Errota Kultur Etxean
(Beharrezkoa da aldez aurretik izena ematea: berdintasuna@abadiano.org/94 466 94 20)

MARTXOAK 12
**ZAPATOS ROJOS** ***Elina Chauvet***
***ARTE LANA BISITATU***
12:00 Traña Plazan

MARTXOAK 16
**ZINEGOAK HEDAPENA**
BILBOKO GAYLESBOTRANS NAZIOARTEKO ZINEMA ETA ARTE ESZENIKOEN JAIALDIA ***LABURMETRAI SORTA*** BATEN PROIEKZIOA.
18:30 Errota Kultur Etxean

Abadiño


# Jon Abrilen 'Neskatoak' filma eskainiko dute Txanportan, gaur

Ipar Euskal Herrira eta Frantziara neskame lan egitera joan zirenen istorioa

**> ABADIÑO** I.E.

Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira antolatutako egitarauaren barruan, gaur, 19:00etan, *Neskatoak* dokumentala emango dute Abadiñoko Txanporta kultur etxean. Frankismoan, 50eko eta 70eko hamarkaden artean, Ipar Euskal Herrira eta Frantziara neskame lan egitera joan behar izan zuten ehunka emakumeren istorioa kontatzen du Jon Abrilek zuzenduriko dokumentalak, horietako hamabostegaz izandako solasaldietan oinarrituz. Baztan eta Bidasoa eskualdeetako emakumeen testigantzak dira dokumentalaren ardatza. Donibane Garazin eta Ziburun 20 urtez lan egin zuen bere amama Micaelaren kontakizunak izan zituen filma egiteko akuilu Abrilek.



Neskame lanean bizi izan zutena kontatzen dute elkarrizketatuek.

**Baztango eta Bidasoako 15 emakumeren testigantzak**

# Sistema patriarkalaren aurkako aldarria Durangalde osoan zabalduko dute

Frenorik Ez plataformak martxoaren 11ko jaialdi feministan parte hartzeko deia egin die emakumeei



Orain bi urte bizikleta martxan ateratako argazkia.

> **BERDINTASUNA** J.G.

Frenorik Ez plataforma feminis-tak jaialdia antolatuko du martxoaren 11rako. Sistema patriarkalaren kontrako aldarrikapena Durangalde osoan zabaltzea da ekimeneko antolatzaileen asmoa. 10:00etan bizikleta martxa abiatuko dute Durangoko Santa Anatik. Handik irtenda, Iurreta, Abadiño (Matiena, Zelaieta), Atxondo, Elorrio, Zaldibar eta Berriz zeharkatuko dituzte. Antolatzaileek azaldu dutenez, parte-hartzaileek Helmugan dutxatzeko aukera izango dute. Helmugan, bizikletak gordetzeko lekua jarriko dute. Era berean, haurren txokoa ere antolatuko dute.

**Bazkaria gaztetxean**

Egitarauan hurrengo ekintza Berrizko Gaztetxean izango da. 15:00etan bazkari beganoa prestatuko dute. Parte hartu gura dutenek txartelak eskuratzeko aukera dute Durangoko Intxaurren, Elorrioko Portalekuan, Berrizko Fondan eta Abadiñoko Abarketeruenean. Langabeek bost euro ordaindu beharko dute, eta gainerakoek zazpi euro. Bazkalondoan, Arrasateko Las Klitorixx taldeak performancea taularatuko du.

**Bazkalondoan Las Klitorixx taldeak performancea taularatuko du**

**Bizikletak uzteko lekua eta haurren txokoa prestatuko dituzte Berrizen**

**Jaia eta aldarrikapena**

Ainhoa Olaso Frenorik Ez plataformako kideak emakume feministak ekitaldi honetan parte hartzera animatu ditu, mugimendu feministan militatu zein ez. Lauzpabost urte dira bizikleta martxa antolatzen dabiltzala. Helburua elkarrekin ondo pasatzea eta aldarrikapenerako tartea izatea dela azpimarratu du Olasok. Aurreko edizioetako esperientzia "oso ona" izan dela nabarmendu arren, iaz ez zuten eguraldia lagun izan. Euri zaparradek errepidean putzu ugari sortu zituen, eta ekitaldia bertan behera uztekotan ere izan ziren. Hala ere, azkenean, bizikletekin errepidera irtetea erabaki zuten.

**EGITARAUA**

**10:00**
· Bizikleta martxa.

**Ibilbidea**
DURANGO (SANTANA) / IURRETA / MATIENA / ABADIÑO / ATXONDO / ELORRIO / ZALDIBAR / BERRIZ

**15:00**
· Bazkari beganoa Berrizko gaztetxean.

**Ondoren**
· Performancea: Las Klitorixx.

## Iratxe Mugirek kontzertua emango du, gaur

> **EGITARAUA** J.G.

Iratxe Mugire kantautore barakaldarrak zabalduko du, Zaldibarren, martxoaren 8ra begira antolatutako egitaraua. *La piel transparente* diskoko abestiak taularatuko ditu Mugirek Zaldibarren, 19:30ean, Jose Antonio Agirre parkean.

Asteburura begira, Helmuga elkarteak sortutako lanekin erakusketa ikusgai izango da liburutegi zaharrean. Zapatuan, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara egongo da zabalik. Domekan, berriz, 11:00etatik 14:00etara.

Martxoaren 8an, ostera, Helmuga emakume elkarteak irteera antolatu du. Arratsaldean kontzentrazioan parte hartzeko deia egin dute, 19:30ean, udaletxeko plazan.

Hurrengo zapatuan, martxoaren 11n, afaria eta dantzaldia prestatuko dituzte Olazarren . Txartelak salgai daude 20 euroren truke, Olga dendan eta Karobi eta Castet tabernetan. Antolatzaileek gogoratu dutenez, izena emateko azken eguna martxoaren 6a da, astelehena.

**Helmugako kideen lanekin erakusketa ikusgai dago**

**Martxoaren 8ko kontzentraziorako deia egin dute udaletxeko plazan**



# "Hurrengo disko osoa euskaraz izango da; gaitza egin zait, baina erronka moduan hartu nuen"

Euskaraz abesten zuen emakumezko rap-kantaririk ez zegoela ikusita, laster kaleratuko duen laneko letra denak euskaraz sortu ditu La Basu-k

**> MUSIKA** J.D.

Emakumea eta rap-kantaria. Gaur egun ezohiko konbinazioa bada, are arraroagoa zen 90eko hamarkadan. Euskal Herrian ez zegoen horrelako adibiderik Elena Caballero 'La Basu' bilbotarra agertu zen arte. Aitzindaria izan zen. Harrezkero, raparen esentzian dauden izaera aldarrikatzaile eta inkonformista bere egin ditu. Harresiak eraistera eta bidea markatzera ohituta dago. Laster pauso berri bat emango du. Lehenengoz, euskara hutsezko diskoa kaleratuko du. Eta lan berri horretarako abesti batzuk martxoaren 11n, 21:30ean, Zornotzako Zelaieta parkean eskainiko duen kontzertuan aurreratuko ditu.

"Beharrezkoa" zen pausoa zela adierazi du La Basu bilbotarrak. "Aurreko diskorako [Aire es Vida] 'Trakamatraka' izeneko euskarazko abesti bat sortu genuen. Gero ohartu ginen euskaraz ziharduen emakumezko rap-kantaririk ez zegoela. Horregatik erabaki nuen hurrengo disko osoa euskaraz egitea; erronka moduan hartu nuen", azaldu du. Euskaraz badakien arren, 15 urtean bere inguruan euskaraz aritzeko aukerarik ez duela izan dio, eta horregatik "gaitza" egin zaiola asmoa errealitate bihurtzea. Baina lanik handiena eginda du, eta falta zaiona amaitzeko "topera lanean" dabil. Uda heldu orduko argitaratuko du 'Ni naiz izotz erregina' diskoa. Urtea amaitu aurretik, gaztelaniazko beste bat kaleratzeko asmoa duela ere adierazi du Bilboko musikariak.

**90ko hamarkadan emakumezko rap-kantari bakarra izan zen Euskadin**

**'Eskina femenina' proiektua**

2013az geroztik Aneguria musikariagaz batera martxan jarritako 'Eskina femenina' proiektuagaz dabil. Rapa egin gura duten emakumeei bidea erraztea du helburu. Youtube-n duten kanal batean rapa egiten duten emakumezkoen 1.400 bideo inguru batu dituzte. BasterFest izeneko jaialdia ere antolatzen dute, emakumeei zuzenean abesteko eszenatoki bat eskainiz. Emakumeak protagonista dituen jaialdia da.

Horrez gainera, idazketa tailerrak ere antolatzen dituzte, emakumeentzat zein gizonentzat. "Ez dira talde itxiak. Guretzat oso inportantea da emakume batek rap munduan bizi duena gizonezkoek ere bertatik bertara ezagutzea", azaldu du La Basuk.




MARTXOAREN 8an
ZORNOTZAN 2017
**EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA**

**MARTXOAK 4**
· Goiz osoan zehar Zelaieta Parkean: **Emakume Artisau eta Nekazarien azokaren XX. edizioa.**

· 20:00etan **Beldur Barik Gunea GAUERO DISKO**, Gaztetxokon.

**MARTXOAK 8**
· **Kontzentrazioa eta adierazpen instituzionala**ren irakurketa Herriko Plazan 13:00etan.

· **Emakume ekintzaileei zuzendutako tailerra.**

**MARTXOAK 11**
· 21:30ean **Gazte Eguna: "La Basu" rap-kantari feministaren emanaldia**, Zelaieta Parkean.

**MARTXOAK 18**
· 11:00etan **Gazteei zuzendutako tailerra "Musika laborategia"**, Gaztetxokon.

· 12:00etan **Maite Franko ipuin kontalaria "Filomena Musugorri, errege"** (12:00etan 3-5 urte bitartekoentzat eta 12:30ean 6tik gorakoak) Udal Liburutegian.

**HILABETE OSOAN ZEHAR KINE ZIKLOA**
· **Martxoak 7:** Zikloaren aurkezpena irakurketa dramatizatuarekin Urgotxouren eskutik, **"La puerta abierta"** filma eta solasaldia.
· **Martxoak 14: "Toni Erdmann en VOSE"** filma.
· **Martxoak 21: "Maria (y los demás)"** filma, solasaldia, zikloaren amaiera eta luncha.

Antolatzailea
ametx
Laguntzailea
BERDINTASUNERAKO UDAL BATZORDEA

# Atera etekina Anbotoren Lagun txartelari!

## Gozatu abantaila eta deskontu hauetaz:

**A-METZ DEKORAZIOA**
> -%20 proiektuan, udaleko legalizazioetan eta irekiera proiektuan.
> -%20 ideien proiektuan.

**BETIXU JATETXEA**
> - %10 asteburuko otorduetan eta kartan, ostiral eta larunbat gauetan.

**COLOR PLUS**
> -%10 tinta- eta toner- kartutxo bateragarrietan.
> -%5 tinta- eta toner- kartutxo originaletan.

**EPOCA SUKALDEAK**
> -%10 sukalde nahiz etxeko altzarietan.

**EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA**
> -%10 sarreran deskontua museoko eta planetarioko sarrera orokorrean, bai eta bietarako balio duen sarrera konbinatuan ere.

**GIMNASIO ZIRKIN**
> Bazkide berriei matrikulazioa doan.
> Bazkide direnei 10 sesioko solarium bonoa doan.

**HITZ LIBURU-DENDA**
> -%10 euskarazko liburuetan.

**HONTZAEXTREM ABENTURA PARKEA**
> -%15 sarreran.

**ITAI ARROPA ETA OSAGARRI DENDA**
> -%5 lehenengo erosketan.
> -%10 erosten den bigarren arropan.

**IURRETA KOPISTEGIA**
> -% 10 eskola eta bulego materialean.
> -%5 musika, opari eta liburuetan.

**KATXARRO JATETXEA**
> - %10 asteburuetako menuetan.

**KIROL ERROTA GIMNASIOA**
> Bazkide berriei matrikulazioa doan.

PSE.: 136/14

**LANDAKO OPTIKA**
> -%15 eguzkitako betaurrekoetan, audiologian, ikusmen urritasunean, eta armazoi eta lenteetan.

**MANCISIDOR 1866 BITXI-DENDA**
> -% 5 deskontua 100€-ra arteko erosketetan.
> -%10 deskontua 100€-tik gorako erosketetan.

**NATURALKI BELARDENDA-EKODENDA**
> -%5eko deskontua kosmetika ekologikoko produktuetan.
> -%15eko deskontua Colnatur Complex kolageno-magnesio produktuan.

**OPEN KLUB**
> -%20ko deskontua matrikulan. Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin.

**PLATERUENA KAFE ANTZOKIA**
> Bosgarren gosaria doan.
> Plateruenak antolatutako ekitaldietan leihatilan erositako bigarren sarrera doan.

PSE: 145-13

**UNAMUNZAGA ETXEBARRIA HORTZ-KLINIKA**
> Azterketa eta bi erradiografiak doan.

**UNDARRI BIKE**
> -%10 ski eta snow materialen mantentze-lanetan: zolari argizaria eman eta ertzak zorroztu.
> -%10 bizikletako osagarrietan.

**URRIKE LIBURU-DENDA**
> -%5 liburuetan.
> -% 10 papergintzan.

**UR URDAIBAI**
> -%25 Anbotoren Lagunentzat eta horren lagun batentzat Urdaibaiko itsasadarraren jaitsieran, piraguan edo stand up paddle-ean.

**Anbotorenlagunak**
Lekuan lekuko lagunak

www.anboto.org · lagunak@anboto.org · 946 816 558
Anboto Komunikabideak · @anboto · @anbotokomunikabideak

# *“Uztargi.Klik argazkizale elkartean nabil; elkarteko kideengandik ikasi dut gehien”*

Fermin Areitioren omenezko I. argazki lehiaketan herriko saria jaso du Sara Estebez zornotzarrak



**> ARGAZKIGINTZA** I.Esteban

**Erizaina eta argazkizalea da Sara Estebez (1993, Zornotza). Bere mutil-lagunaren erretratu bategaz herriko saria jaso du Zornotzako Fermin Areitio lehiaketan. Sariketa horretara aurkezturiko 2.074 argazkietatik 30 Zelaieta zentroan izango dira ikusgai, martxoan.**

**Zelakoa da saritu dizuten argazkia? Non egindakoa?**

Gura barik bezala atera zen. Argazkia ikusi arte ez nintzen konturatu kristaleko islagaz, adibidez. Eta badirudi epaimahaiak, hain justu ere prestatuta ez egotea baloratu duela. Interrailean egin nuen bidaia batean mutil-lagunari egin nion erretratu bat da saritu dutena, Norvegian hartutakoa.

**Lehenengo aldiz aurkeztu zara lehiaketa batera?**

Zornotzan saritu didaten argazki honegaz eta beste bategaz Zaldibarko lehiaketara aurkeztu nintzen, azaroan, baina han ez nuen saririk eskuratu.

**Jende askok hartu du parte Zornotzako deialdian.**

Bai, Estatuko lurralde guztietako argazkilariek bidali dituzte beraien lanak. Bi milatik gora argazkilarik hartu dute parte.

**Ikusi dituzu beste argazkiak? Badago bereziki gustuko duzunen bat irabazleen artean?**

Ikusi ditut, noski, eta asko daude oso onak. Oso deigarriak egiten zaizkit, adibidez, atzerriko lurraldeetan egindako argazkiak. Badago bat ume bati ile-apaindegi batean egindakoa, oso gustuko dudana.

**Noiz eta zelan zaletu zara argazkilaritzara?**

Duela bi urte erosi nuen reflex kamera, eta hasi nintzen argazkigintzan interesa jartzen; interneten tutorialak ikusten, liburuak irakurtzen... Duela urtebetetik Zornotzako Uztargi. Klik argazkizale elkartean nabil, eta elkarteko kideengandik ikasi dut gehien. Hogeita hamar kidetik bi gara emakumeak, eta gazteena naiz ni. Argazkigintzan urte asko daramaten kideek teknika aldetik asko lagundu didate: tailerrak egiten ditugu... Egunero ibiltzen naiz orain kameragaz.

**Kontzertuetan ere aritzen zara argazkiak egiten. Kontuan hartu beharreko elementu asko izaten ditu argazkilariak kontzertuetan...**

Mutil-lagunak Mockers musika taldean jotzen du, eta euren kontzertuetan argazkiak egiten hasi nintzen. Orain, joaten garen kontzertu guztietara eramaten dut kamera. Ez da erraza kontzertuetan argazkiak egitea, askotan ez da oso argi aproposa egoten... Edozelan ere, kamera berria erosi dut, eta asko nabari da hori ere argazkien fokuratzean eta araztasunean.

**Etorkizunean argazkigintzak zure bizitzan zer leku izatea gustatuko litzaizuke?**

Bestelako ogibidea izan arren, gustatuko litzaidake argazkigintzak gaur egun duena baino espazio gehitxoago izatea; hemendik urte batzuetara ezkontzetan argazkilari gisa jardun ahal izatea, edo musika taldeek eskatuta beraiei argazkiak egitea, adibidez.



Herriko saria irabazi du Estebezen argazki honek.



Pilar Garcia Pitarchen argazkiari eman diote lehenengo saria.

# Kaos absolutuan murgiltze prozesua, antzerkiak kontatua

Lehenengoz Euskal Herrian, Berrizen eskainiko dute, bihar, ‘Interrupted’

**> ANTZERKIA** Itsaso Esteban

Bihar, 20:00etan, Berrizko Kultur Etxean arituko da Madrilgo Teatro En Vilo konpainia, lehenengoz, Euskal Herrian. Lau emakumek —Fiona Clift, Andrea Jiménez, Noemi Rodríguez eta Blanca Solék— sortutako testuan oinarrituriko *Interrupted* obra antzeztuko dute gidoiaren sorkuntzan ere parte hartu duten Andrea Jimenezek eta Noemi Rodriguezezek, eta Ariana Cárdenas eta Esther Ramos taldekideek.

2012an Londresen sortu zuten Teatro En Vilo, eta egun Madrilen dute egoitza, baina han-hemengo sortzaileen kolaborazioa dute ardatz. Taldekideen berbetan, “fikzioa eta errealitatea banatzen dituen lerroan kokaturik, umore absurdoa eta keinu-komedia” baliatzen dituzte euren lanetan.

Berrizen eskainiko duten *Interrupted* antzezlanak, “bizitza perfektu bat zena bat-batean infernu zelan bilakatu daitekeen kontatzen du”. Anabel izeneko pertsonaia du protagonista, “arrakasta handiko emakumea, azkar, modu frenetikoan bizi dena”. Sei egunean Anabelek bere bizitzaren gaineko kontrola zelan galtzen duen erakusten du obrak, “zelan murgiltzen den kaos absolutuan”.

> ”Bizitza perfektu bat bat-batean infernu zelan bilakatu daitekeen kontatzen du obrak”

Londresko Mimetic jaialdian konpainia sortuberririk onenaren saria jaso zuen Teatro En Vilo taldeak, 2013an. Munduko hainbat herrialdetan eskaini dituzte emanaldiak, eta hainbat sari jaso ere bai.



Lau emakumek idatziriko antzezlana da ‘Interrupted’, lau aktorek antzezten dutena.

Kirola

**David Iriarte Urdiain** | Zornotza saskibaloi taldeko jokalaria | Palma, 1995

# “Azken partiduetako garaipenek indarra emango digute denboraldi bukaerarako”

David Iriarte Zornotza Saskibaloi taldeko hegal pibota Bilbao Basketegaz ere entrenatzen dabil denboraldi honetan.



> KIROLA Maialen Zuazubiskar

**David Iriarte Urdiainek Iruñeko sustraiak ditu, Palmako saskibaloi jokalaria da, eta Zornotza Saskibaloi taldean dabil denboraldi honetan.**

**Urte erdi daramazu Zornotzako Saskibaloi taldean. Zerk erakarri zintuen Zornotzatik?**
Urte asko neramatzan Badalonan jokatzen, eta azken bi urteetan Urrezko LEB ligan jokatzen nenbilen Prat taldeagaz. Baina, azken denboraldian, Badalonako ibilbideari bukaera ematea erabaki nuen, nire kirol ibilbidea geldirik ikusten nuen eta.

**Orduan, Zornotzara etortzea erabaki zenuen?**
Mikel Garita Zornotzako entrenatzaileak proiektuaren berri eman zidan, eta asko gustatu zitzaidan kontatu zidana. Aurretik etorrita nengoen partiduak jokatzera, eta gogoko nuen bertakoa giroa. Gainera, taldean egondako hainbat lagunek ere oso ondo hitz egin zidaten proiektuaz. Horrez gain, Mikelegaz hitz egin ostean, Carles Duran Bilbao Basketeko entrenatzaile berria izango zela jakin nuen, eta hori plus bat izan zen niretzat.

**Esan daiteke, beraz, Duran Bilbao Basketeko entenatzaile berria izatea erabakigarria izan zela zure erabakia hartzerako orduan?**
Egia esan, bai. Carles Duran Bilbon egongo zela jakin nuenean, baiezkoa eman nien Zornotzakoei. Hala ere, egia da ordurako nahiko konbentzituta nengoela Zornotzako proiektuagaz.

**Zornotzako taldean jokatzeaz gain, Bilbao Basketegaz ere entrenatzen zara.**
Bai, hori da. Bilbao Basketegaz entrenatzeko aukera eskaini zidaten eta, nola ez, onartu egin nuen. Bilbao Basketeko kideek ea entrenamenduetan lagundu gura nien galdetu zidatenean, ezin nuen sinetsi. Orduz geroztik, beraiei laguntzeaz gain, goi mailako kirolari bikainengandik ikasten nabil. Hemendik, talde bietako kideei eskerrak eman gura dizkiet, bai Zornotzakoei, bai Bilbao Basketekoei, momentu oro niri laguntzen egoteagatik. Pribilegiatu bat naiz beraiei esker.

**Etorkizunean, zure burua Bilbao Basketen ikusten duzu?**
Hori ez dago nire esku. Egia esan, kontrolatu ezin ditudan gauzekin arduratzea ez zait gustatzen. Baina, argi dago izugarria izango litzatekeela.

**Zure taldera itzuliz, zer topatu duzu Zornotzan?**
Izugarrizko lan taldea aurkitu dut hemen, oso gustura nago, bai Mikel Garita entrenatzaileagaz, bai taldekideekin. Aitortu behar dut taldeko jokalarien entrenatzeko gogoak asko harritu nauela. Aurreko taldean nengoenean, jendeak ez zituen ondo eramaten sei-zazpi pertsonako entrenamenduak, askori oso gogorrak egiten zitzaizkien. Hemen, berriz, ez da horrelakorik gertatzen. Gutxi gaudenean ere dena ematen da, taldeak ahalik eta gehien hobetu dezan.

> *“Etxean gelditzen zaizkigun partidu guztiak irabaztea da gure helburu nagusia”*

**Nola zaude momentu honetan taldean?**
Taldean oso gustura nago. Banekien aurreko taldean baino rol garrantzitsuagoa izango nuela hemen, eta horrela izan da. Egia esan, hasieran erregulartasuna lortzea kostatu zitzaidan, eta partidu batzuetan nahiko gaizki jokatzen ibili nintzen. Ez nuen nire lekua aurkitzen kantxan. Hala ere, ematen du bolada txar horri buelta eman ahal izan diodala, eta orain, azken partiduetan, benetan dudan maila ematen hasi naizela.

**Bolada txar baten amaieraren inguruan hitz egin duzu. Esan daiteke taldeak izan duen bolada txarrari ere bukaera eman diozuela azken hiru partiduak irabazita?**
Baietz esango nuke. Azken partidu hauetan taldeak oso ondo jokatu du, eta merezi genituen garaipenak eskuratu ditugu. Seguru nago azken partiduetako garaipenek indarra emango digutela denboraldi bukaerarako.

**Beraz, azken asteetako garaipenek taldea indarberritu egin dute?**
Dudarik gabe. Une honetan taldea oso ondo dago, inoiz baino hobeto jokatzen ari garela esango nuke, eta hori emaitzetan ikusten da. Gainera, asterik aste hazten goazela esango nuke. Hala ere, egia esan, denboraldia nahiko ondo hasi genuen, baina hainbat jokalari lesionatu egin ziren, eta taldearen maila jaistea ekarri zuen horrek. Orain, baina, merezi dugun tokian gaudela esango nuke.

**Denboraldia bukatzear dago. Zortzi partidu falta zaizkizue denboraldiari bukaera emateko. Badaukazue helburu konkreturik?**
Oker ez banago, etxean lau partidu falta zaizkigu, eta beste laurak kanpoan dira. Beraz, helburua argia da. Etxeko partidu guztiak irabaztea da gure nahia, Zornotzako zaleei garaipen horiek zor dizkiegu eta. Bestalde, play off-etan egongo garela oraindik ziurra ez den arren, ez daukat dudarik hori ere lortuko dugula.

**Zure kirol ibilbideari errepaso bat eginez, 2013an brontzezko domina irabazi zenuen Europako txapelketan, eta 2014an zilarrezkoa. Gainera, egun NBAn dabiltzan Hernangómez anaiekin aritu zinen. Nolako esperientziak izan ziren?**
Esperientzia izugarriak izan ziren, ahaztezinak. Urte askotako lan gogorraren emaitzak izan ziren bi dominak. Egia da 2014an selekzioan jende garrantzitsua falta izan zela, eta eurak egon izan balira, agian nik ez nuela tokirik izango. Baina selekzioko parte izan nintzen, eta partiduetan minutuak izan nituen. Oso pozik nago lortutakoagaz. Eta, nola ez, egun saskibaloiaren maila gorenean daudenekin taldea partekatzea ikaragarria izan zen.

# “Hasieran, parte hartzeko dudak nituen, baina, egia esanda, ez naiz damutzen”

## Zornotzako frontoian Emakume Master Cup txapelketako finala jokatuko du Leire Etxanizek

**> PILOTA** Joseba Derteano

Asteburu honetan pilotaren inguruko final bi izango dira Durangaldean, eta bietan protagonista izango da Leire Etxaniz etxebarriarra. Gaur arratsaldean paleta gomako eliteko finala jokatuko du Mallabian eta, domekan, Emakume Master Cup txapelketa irabazten saiatuko da Zornotzan. “Hasieran, Master Cupean parte hartzeko dudak nituen. Modalitate biak batera eramatea larregi izan zitekeela pentsatzen nuen, baina, egia esanda, ez naiz damutzen”.

Paleta goman gaur egungo izarretako bat da. Esku pilota, aldiz, Master Cuparen harira berreskuratu duen modalitatea du. Behin adin batera heldu zenean, esku pilotan aritzeko beste neskarik ez eta paleta goman hasi zen. “Txapelketa honi esker, utzita nuena berreskuratu dut. Alde horretatik, niretzat ona izan da”.



Orain urte batzuk Eibar taldeagaz futboleko lehenengo mailan jokatu zuen.

### Zornotzako finala

Emakumeen Master Cup txapelketako finalak domekan 12:00etan hasiko dira, Zornotzako pilotalekuan. Elite mailan Leire Etxanizek eta Olatz Arrizabalagak Nagore Arozena eta Maider Mendizabal gipuzkoarren kontra jokatuko dute. “Final gogorra aurreikusten dut, baina guk orain arteko maila ematen badugu irabazteko aukerak ditugu”, uste du Etxanizek. Kantxa barruko lehiagaz haratago, txapelketa bera eta izaten ari den oihartzuna emakumeen pilota sustatzeko baliagarriak direlakoan dago. “Txapelketa honi esker jendeak gehiago ikusi du emakumea eskuz jokatzen. Orain arte ez da horrela izan. Ea honegaz apurka gauzak aldatzen hasten diren”.

### Gaur paleta goman

Etxanizek gaur jantzi dezake asteburuko lehenengo txapela. Mallabiko pilotalekuan paleta gomako finala jokatuko du 19:00etan hasiko den jaialdian. Nagore Martinegaz osatuko du bikotea, eta Arrizabalaga eta Mendizabal izango dituzte kontrario elite mailako finalean.

# Pou anaien abenturen berri, Plateruenean

## Mendiak Hurbilduz topaketan parte hartuko dute


Pou anaiek ikus-entzunezkoa eskaini eta galderei erantzungo diete.

**> MENDIA** J.D.

Mendizaleen topagune bihurtu den Mendiak Hurbilduz ekimenak bosgarren aldia egingo du martxoaren 10eko barikuan. Plateruenera etorriko diren aurtengo gonbidatuetako bi Pou anaiak izango dira. Eskalatzaile, alpinista eta abenturazale gasteiztarrek beren ibilbideko hainbat lorpen jasotzen dituen *Del Ártico a la Antártida* izeneko ikus-entzunezkoa eskainiko dute eta, horren ondoren, bertaratzen direnen galderei erantzungo diete.

Beste protagonista batzuk ere izango ditu topaketak. Carlos Garcia da horietako bat. 78 urteko durangarra aitzindarietako bat da euskal eskaladan. Gazte-gaztetan hasi zen pareta bertikalak igotzen. Kike de Pablo mendigoizaleak Garciari egindako elkarrizketaren ikus-entzunezkoa eskaniko dute Plateruenean, eta Garcia bera ere hantxe egongo da, ikusleen galderei erantzuteko.

### Sari banaketa

Hitzaldi bi horien artean, Mendia Hurbilduz film laburren lehiaketako sari banaketa egingo dute. Aurten zortzi lan aurkeztu dituzte, antolatzaileen esanetan. Irabazleen lanak zuzenean ikusi ahalko dira.

## ADITUAREN TXOKOA



**ALFONTSO ARROIO**
ETBko kirol kazetaria

### Diruaren hotsa

“*Txin-txin, txin-txin diruaren hotsa…*” dio abesti ezagunak. Txirrindularitza diru gosez da. Garestia da oso lasterketa bat antolatzea. Antolatzaileek komeriak izaten dituzte urtero-urtero aurrera egiten. Gure eskualdean ikusi dugu Urkiolako Igoera lasterketa desagertzen, baita Udabarriko Klasikaren zailtasunak ere egutegian jarraitzeko.

Kirol merkea da, ordea, ikuslearentzat. Ez dago sarrera ordaindu beharrik. Ondorioz, publizitatea eta laguntza publikoa dira diru iturri bakarrak. Bata lortzea gero eta zailagoa da. Besteak, aldiz, lehentasun garrantzitsuagoak ditu. Euskal Herrian ez ezik, Europa osoan hedatu den gaixotasuna da.

Hori horrela, hainbat aukera aztertzen ari dira kontinente zaharrean. Iragan astean, antolatzaileen artean egindako galdeketa argitaratu zuen Het Nieuwsblad egunkari flandriarrak. Ondorioa argigarria da. Flandriako egun bateko lasterketen antolatzaileen %50ek uste du etorkizunean ezinbestekoa izango dela ordainketa modu bat jartzea. Sarrera hitza ez aipatzeko eufemismo bat. Erabaki zaila benetan. Beste kirol batzuetan ikusleak ez du inongo arazorik patrika husteko, baina txirrindularitzan zaleek onartuko lukete? Sakon aztertzeko gaia dela deritzot. Diruaren truke, txirrindularitzak zaleak eta arima bidean galduko lituzkeela diote batzuek. Beste batzuek, aldiz, txin-txin hots barik, lasterketarik ez litzatekeela egingo. Erabaki zaila bezain polemikoa. Zein lehenago, arrautza ala oiloa?






6.400 €*
-tik aurrera
Etxetresna elektrikoak barne
MARTXOAREN
25era arte
"ARGIZ BETE ZURE
SUKALDEA"
ALTZARIEN BERMEA 10 URTE
KUTXEN ETA RAILEN BERMEA 25 URTE
1A Marca Europea
SCHMIDT ABADIÑO
Murueta auzoa, z/g - 17B lokala
Eroski saltoki-gunea - ABADIÑO
Tel.: 946 526 195 · info@schmidt-abadiano.com
www.schmidt-cocinas.es
SCHMIDT
Cocinas y Muebles de Hogar
* Ikusi baldintzak dendan. SCHMIDT GROUPE SAS - RCS COLMAR 326 784 709 - Credit argazkia : Atelier Marc BARRAL BARON , Visiolab eta A Preview - Argazkiak ez dira kontratukoak

# “Ingalaterran futbola biziagoa da, ez dizute arnasarik hartzen uzten”

## Carlos Cañada Kultural Bko jokalaria Hirugarren Erregionaleko pitxitxia da



Nafarroako Unibertsitatean Ekonomia, Lidergoa eta Gobernantza ikasten dihardu.

**> FUTBOLA** Joseba Derteano

Carlos Cañadak (Durango, 1997) 23 gol daramatza Durangoko Kulturala B taldeagaz, eta Hirugarren Erregionaleko pitxitxia da. Gazteagotan erdilari jokatzen zuen, baina Manchester hirian emandako hiru urteek “futbolari lez aldatu egin ninduten”, onartu du. Fisikoki indartsuagoa da eta aurrelari sena deskubrituta itzuli zen handik.

Umetan Kulturalean hasi eta kadeteetan Iurretan ibili ostean, 15 urtegaz Manchesterrera joan zen Batxilergoa amaitzera eta ingelesa hobetzera. Stonyhurst ikastetxean emandako hiru urteetan ikasketak eta kirola uztartu zituen. Hiru hilez errugbia probatu ostean, ikastetxeko futbol taldera batu zen, eta osteko urte bi eta erdiek lorratz ezabaezina utzi zioten. Hango futbol jokamoldera moldatu behar izan zuen. “Joan nintzenean fisikoki biguna nintzen. Han futbola hain fisikoa zela ikusita, gimnasioan aparteko lana egin behar izan nuen. Gorputza sendotu, eta fisikoki indartu egin nintzen”, azaldu du. Horregaz batera, erdilari izatetik aurrelari izatera igaro zen, golak sartzeko zuen erraztasunagatik. Dohain horiek Ingalaterra iparraldeko eskolarteko selekzioen txapelketa jokatzeko balio izan zioten.

Han ikasitakoa lagungarri zaio hemen. Iaz Iurretakoko gazte mailako taldeagaz 24 gol sartu zituen, eta aurten, seniorretako lehen urtean, pitxitxia da Durangoko taldeagaz. “Hirugarren Erregionala oso maila fisikoa zela abisatu zidaten, eta bada izan, baina oraindik Ingalaterrako futbola biziagoa dela deritzot. Gainean daude beti, eta ez dizute arnasarik hartzen uzten”, adierazi du Cañadak.

Astegunetan Iruñean bizi da, Nafarroako Unibertsitatean Ekonomia, Lidergoa eta Gobernantza ikasketak egiten ari da eta. Unibertsitateko futbol taldeagaz entrenatzen da Durangoko Tabirara etorri ezin den egunetan.

### Igoera, helburu nagusi

Durangoko Kulturalak aurten sortu du bigarren taldea. Talde nagusirako saltoa eman aurretik, jokalariak zailtzeko geralekua izan gura du. Baliabidedun kluba denez, talde indartsua eratu dute mailaz igotzeko eta une honetan lider doaz. Bi-hiru urtean Lehen Erregionalera heldu gura dute. Beraz, aurten mailaz igotzea saria ala obligazioa da? “Bietarik du”, Cañadaren ustez. “Egiten ari garen lan onaren eta konstantziaren saria litzateke. Baina obligazioa ere bada. Hasieratik mailaz igotzea dugu helburu. Taldea goragoko mailetan egonkortu behar da, Hirugarren Erregionaletik Hirugarren Mailara koska handiegia dago eta”.

### Lehen talderako bidea

“Mailako klubik indartsuenetan jokatuta, banekien gol dezente sartzea lorgarria zela, baina ez nuen hainbeste ere itxaroten. Egia esanda, taldekideei esker sartu ditut horietako asko”, azaldu du.

Pentsatzekoa da bere maila ez zitzaiela oharkabean igaroko klubeko arduradunei. “Ohorea litzateke lehen taldean jokatzea, edo behintzat eurekin entrenatzeko deitzea. Oraindik ez dut aukerarik izan. Baina hauxe da bidea, golak sartzea. Egia da, baita ere, lehenengo taldean erasoko jokalari oso onak daudela. Ez da kasualitatea Bigarren B Mailara igotzeko borrokan aritzea”, onartu du.

# Zaleak eta jokalariak elkarrekin, Berrizen

## Partidu garrantzitsua du Berrizek zapatuan

**> FUTBOLA** J.D.

Berriz futbol taldea estuasunetan dago Bigarren Erregionalean. Mailari eusteko borroka bete-betean sartuta dago. Egoera zail honi aurre egiteko, jokalariek eta zaleek batera joan behar dutela uste du zuzendaritzak eta, asteburu honetako partidura begira, hainbat ekintza antolatu dituzte jokalariek zaleen berotasuna sentitu dezaten.

Zapatu honetan, 17:00etan, San Antonio taldearen kontra jokatuko dute Berrizburun. Aurretik, 16:15ean, klubeko jokalari, bazkide eta gurasoak BBK parean geratu dira, futbol-zelaira elkarrekin kalejiran igotzeko. Klubeko ekipazioa edo kamiseta jantzita joateko deia egin dute.

Zelaira sartzerakoan, gerritik gora jantzi gorriren edo klubeko bereizgarriren bat daramanari zozketarako errifa bat erregalatuko diote. Partiduan zehar Berrizen aldeko abesti eta animo oihurik ez dela faltako ere aurreratu dute.

> Zapatuan, 16:15ean, klubeko jokalari eta zaleak elkarrekin kalejiran igoko dira futbol-zelaira

# Trigueros, 17 orduko ahaleginaren saria

## Basque Ultra Traila irabazi du, 110 kilometroko proba




Trigueros helmugara sartzen, Gasteizen.

**> ULTRA TRAILA** J.D.

Basque Ultra Trailaren lehen probako 110 kilometro gorabeheratsuek Bilbo eta Gasteiz lotu zituzten joan zen asteburuan. Emakumeetan Silvia Trigueros abadiñarrak irabazi zuen. Bariku gauerdian abiatu eta zapatu arratsaldean helmugaratu zen, 17 ordu eta 18 minuturen ostean. Azken asteetan arrastaka zekarren lesioa ez zuela nabaritu azaldu du. Hala ere, probak egiten dihardu lesioaren jatorria jakiteko. Muskulu piramidala izan daiteke.

## AGENDA

### > FUTBOLA

**HIRUGARREN MAILA (gizonak)**

**Durangoko Kulturala - Deusto**
· Zapatuan, 16:45ean, Tabiran.

**MAILA GORENA (gizonak)**

**Abadiño - Trapagaran**
· Zapatuan, 16:00etan, Astolan.

**LEHENENGO ERREGIONALA (gizonak)**

**Ezkurdi - Bermeo B**
· Zapatuan, 18:45ean, Tabiran.

**Zorrontzako - Umore Ona**
· Zapatuan, 17:30ean, Larrean.

**BIGARREN ERREGIONALA (gizonak)**

**Zaldua B - Otxarkoaga B**
· Zapatuan, 17:00etan, Solobarrian.

**Berriz - San Antonio**
· Zapatuan, 17:00etan, Berrizburun.

### > ARETO-FUTBOLA

**HIRUGARREN MAILA (gizonak)**

**Elorrioko Buskantza - Presion Break**
· Zapatuan, 18:00etan, Elorrioko kiroldegian.

**Sasikoa Durango - Lagun Onak**
· Domekan, 12:00etan, Landako kiroldegian.

**EUSKAL LIGA (gizonak)**

**Mallabia Seguros Altaldi - Elorrioko Buskantza B**
· Domekan, 16:45ean, Zaldibarko kiroldegian.

**MAILA GORENA (gizonak)**

**Abadiñoko Gaztetxie - Hegalariak**
· Zapatuan, 17:00etan, Traña-Matienako kiroldegian.

**LEHEN ERREGIONALA (emakumeak)**

**Beti Gol - Otxartabe**
